# HAURRENTZAKO III. PLANA

## HAURREN ETA NERABEEN BABESGABETASUN EGOERETAN ARRETA EMATEKO

## 2016-2019

# Indizea

*Orr.*

I. KAPITULUA Aurkezpena............................................................. 2

II. KAPITULUA Metodologia.............................................................5

III. KAPITULUA Marko Legala…………………………………………………………….…………*9*

IV. KAPITULUA Haurren II. Planaren ebaluazioa..................................15

V. KAPITULUA Egoeraren diagnosia……………………………………………*22*

VI. KAPITULUA Esku hartzeko printzipio eta baloreak…….……..……………*59*

VII. KAPITULUA Haurrentzako III. Planaren helburu eta ekintzak...........64

VIII. KAPITULUA Haurrentzako III. Planaren jarraipen eta ebaluazioa......91

# I. KAPITULUA

## AURKEZPENA

**1999-2004 Haurrentzako I. Planak** Bizkaiko Haurrak Babesteko Sistemaren garapenerako aukera eman zuen. Oso positiboki baloratu zen eta aurrerapen handia izan zen. Barne mailan, Haurren Zerbitzuaren berrantolaketa orokorra ekarri zuen, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitza zentroen sare guztian Egoitza Harrera Zerbitzuaren prestazioaz arduratu zen Egoitza Harrera Unitatea edo Sekzioan Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFE) Laguntza Teknikoko Zerbitzua berriz bihurtzea eta kasua koordinatzeko irudia ezartzea bezalako ekintzetan zehaztu zena. Talde lana indartzeko esfortzu handia egin zen ere.

Honekin batera, esku hartzea zehaztu eta sistematizatu zen, balorazio, orientazio, erabakiak hartze eta kasuen jarraipen prozesuak egindako Esku hartze Eskuliburuari esker nahiko hobetuz. Era berean, programa berriak ezarri ziren eta egoitza harrera baliabideak berrantolatzen hasi ziren. Azkenik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Haurren Zerbitzuaren arteko funtzio eta eskumenak zehaztea argitu eta beste erakundeekin koordinazioa eta batutako protokoloak egitea ere lortutako mugarrietako batzuk izan ziren.

**2008-2011 Haurrentzako II. Planak** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Espezializatutakoen arteko harremanak sendotu eta handitzeko oinarriak ezarri zituen, proiektu ezberdinetan elkarrekin parte hartuz eta beste sistema eta zerbitzu batzuekin egindako jarduerak koordinatzen aurreratuz.

Barne mailan, Egoitza Harrera Unitatearen funtzionamendua egokitu zen eta datuak eta prozesuak kudeatzeko sistemak ezarri ziren. Adingabeei eta euren familiei arreta emateko espazioetan ere egitura erreformak egin ziren.

Esku hartzeari dagokionez, familia harrera lehen mailako babes neurri bezala garatzen jarraitu zen eta larrialdiko harrera eta familia handiko harrera ezberdindutako programak martxan jarri ziren. Era berean, adopzio prozesuak laguntzeko programak garatu ziren eta adopzio prozedurak sistematizatu ziren.

Beste lorpen handi bat egoitza harrera baliabide ugari sortu eta aldatzea izan zen, baita egoitza harreraren tresna sare osoaren kudeaketa eta ikuskaritza bateratzea ere. Honetaz gain, lagundu gabeko adingabe atzerritarren igoerarentzat erantzun eraginkorrak eman ziren eta babes sisteman arreta emandako adingabeek helduen bizitzara igarotzeko laguntza programa zehatzak ezarri ziren. Aldi berean, behar berriei erantzuna ematea handitzeko eta hobetzeko lan egiten jarraitu zen.

**2016-2019 Haurrentzako III. Planaren** oinarria aurreko planaren ebaluazioa eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sisteman parte hartu duten eragile guztiek parte hartu duten egungo egoeraren diagnostiko sakona da. Era berean, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoari eta haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legeari dagozkion alderdiak sartu ditu, garrantzi eta inpaktuagatik.

Plana identifikatutako puntu ahulak hobetzeko elementu sendoenetan oinarritzen da eta Haurrentzako Zerbitzuak egin beharreko jarduerak zehazten ditu zehaztutako helburuak lortzeko. Diseinatzean zeharkako ikuspegi global bat mantentzeko saiakera egin da, Bizkaiko Haurrentzako Babes Sisteman parte hartzen duten eragile guztiak kontuan hartzen dituena.

Haurrentzako III. Planak esku hartze prozesuen etengabeko hobekuntzan eragin positiboa duten ebaluazio dinamikak sartuz eta bateratutako prozesu eta tresnekin esku hartze irizpideak eta metodologiak ahalik eta gehien estandarizatu eta sistematizatzeko beharrari erantzuna eman nahi dio.

Era berean, Planaren helburua da babes jardueretan familia neurriek egoitza neurrien aurrean lehentasuna izatea, familiekin egindako prebentzio lanaren bidez eta familia handiko zein beste familiako harrerei eskainitako laguntzak hobetuz. Dena den, kasu batzuetan egoitza neurriak hartzeko beharra ezagututa ere, lehentasuna dauka egoitza harrera baliabideen kalitatea eta funtzionamendu egokia, haurren eta nerabeen zehaztasunetara egokituz.

Koordinazio dinamikei dagokienez, Haurrentzako III. Planak Gizarte Zerbitzuen Sistema osatzen duten eta beste sistemen gainontzeko eragileekin elkarrekiko lana sustatzen du (osasuna, hezkuntza, judiziala eta segurtasun kidegoak).

Barne mailan, koordinazio, organizazio eta kudeaketa prozesuak hobetzeko esfortzu garrantzitsua egin da, talde lana sustatuz eta atal ezberdinen artean komunikazio kanalak garatuz.

Dokumentua bi zatitan egituratzen da, lehenengoak I. eta V. arteko kapituluak barne hartzen ditu. Bertan, gainera, erabilitako prozesu eta metodologiaren deskribapena ere barne hartzen da, Plan hau sartzen den araudi markoaren berrikuspen bat. Era berean, Haurrentzako II. Planaren ebaluazioaren berrikuspen bat barne hartzen da, egin gabeko eta III. Planean jorratu beharreko ekintzak identifikatzeko. V. kapitulua egungo egoeraren analisi zehatza egitean oinarritzen da, Haurrentzako Zerbitzuaren Memorian jasotako datu kuantitatiboetatik eta egun existitzen diren beharretan sakontzeko aukera eman duen egindako ikerketa kualitatibotik abiatuz.

Bigarren zatia Plana bera garatzen oinarritzen da. Zehazki, VI. kapituluak III. Plana oinarritzen den esku hartze printzipio eta baloreak aipatzen ditu eta VII. kapituluak garatu beharreko helburu eta ekintzak aurkezten ditu. Azkenik, VIII. kapituluan Planaren jarraipen eta ebaluazio metodologia agertzen da, baita erabili beharreko adierazle eta egiaztatze iturriak ere.

# II. KAPITULUA

# METODOLOGIA

Haurrentzako III. Plana egiteko egungo araudi markoa hartu zen oinarritzat, duela gutxi onartutako legeek haurrak eta nerabeak babesteko sisteman sartutako azken aldaketak bereziki azpimarratuz.

Baita ere, aurreko planaren ebaluazioa hartu zen erreferentzia bezala, eta 2015eko Haurrentzako Zerbitzuaren memoriaren datu kuantitatiboak berrikusi ziren. Azkenik, diagnostiko sakona egin zen alderdi positibo eta negatiboak baloratzeko, bai haur eta nerabeekin eta euren senideekin egindako esku hartzeari dagokionean zein Haurrentzako Zerbitzuaren koordinazio eta barne organizazioari lotutako alderdiei dagokionean ere. Bizkaiko Foru Aldundiko eta gainontzeko Administrazio Publikoetako zerbitzu eta sailekin kanpo koordinazio dinamikak ere aintzat hartu ziren, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarenak baina beste sistemenak ere, hala nola: Osasuna, Hezkuntza, Justizia eta Polizia.

Egoeraren diagnostikoa egiteko erabilitako metodologia elkarrizketak, eztabaida taldeak eta Haurrentzako Zerbitzuko profesionalekin eta babesgabetasun egoeran dauden haurrekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden pertsonekin tailerrak egitea izan zen.

**Barne mailan** 8 elkarrizketa eta 5 eztabaida talde egin ziren guztira. Zehazki, elkarrizketa hauek egin ziren:

- Mertxe Muñiz, *BFAko Gizarte Ekintzako Saileko Zuzendaria*[1].
- Jon Etxebarria, *GUFEko Gerentea*[2].
- Consuelo Alonso, *BFAko Haurrentzako Zerbitzuko Burua.*
- Mª Antonia Giner, *Famili harrera eta adopzioen ataleko burua.*
- Mª Carmen Velasco *Harrera, Balorazio eta Orientazio ataleko burua.*
- Rafa Sampedro, *Haur eta Nerabeentzako Zerbitzuetako Dibisioko burua.*
- Alazne Madinabeitia, *Harrera, Balorazio eta Orientazio ataleko eremuko arduraduna.*
- Ángel Bao, *Familia harrera eta adopzioen ataleko eremuko arduraduna.*
- Rosa Gutierrez, *Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUFE) Harrera Zentroetako Zuzendaria.*

---

1 Diagnostikoa egiteko momentuan Mertxe Muñiz Gizarte Ekintzako Saileko Gizarteratze Zuzendaria zen. Zuzendaritza hori 2015. urtean Administrazio eta Gizarte Promozioko Zuzendaritza Orokorra deitzera pasa zen, eta egun Gabin Azaola Estebez du buru.

2 Diagnostikoa egiteko momentuan Jon Etxebarria GUFEko gerentea zen, eta egun Mª Teresa Alba da.

Gainera, elkarrizketak ondorengo eztabaida taldeetan egin ziren:

- Harrera baliabideen hezkuntza ekipoak.
- Harrera, Balorazio eta Orientazio Ataleko teknikariak.
- Familia Harrera eta Adopzioetako Ataleko teknikariak.
- Egoitza Harrerako Unitateko teknikariak (EHU).
- Administrazio Orokorreko langileak eta Haurrentzako Zerbitzuko administrariak.

Egoitza Harrerako gogoeta jardunaldian ere parte hartu zen, eta adingabeen hiru egoitza baliabide bisitatu ziren.

- Hogar San Adrián, oinarrizko sarekoa.
- Hogar Zabalondo, seme-alaba eta gurasoen arteko indarkerian espezializatutako zentroa.
- Loiuko adingabeen zentroa, lagundu gabeko adingabe atzerritarrei zuzendutakoa (LGAA).

Azkenik, **barne lan tailer bat egin zen Haurrentzako Zerbitzuko atal ezberdinetako teknikariekin, Egoitza Harrera Unitatekoekin eta GUFEko egoitza harrera baliabidekoekin.**

**Kanpo mailan** 5 elkarrizketa eta 5 eztabaida talde egin ziren. Zehazki, elkarrizketa hauek egin ziren:**:**

- Mónica Arias, *Bilboko Entzutegiko adingabeen fiskala.*
- Ángel Acebo eta Txema Duque, *harrera gurasoak eta gizarte eremuko teknikariak*.
- Ignacia Arruabarrena, *Doktorea psikologian. Haurrak Babesteko Aditua eta Bizkaiko Foru Aldundiko Haurrentzako I. Planaren idazlea.*
- Manuela González, *Bilboko Udaleko Haurrentzako Negoziatuko Burua.*

Era berean, **Ume Alaia Elkarteari on line galdetegi bat** egin zitzaion.

Bestalde, **kanpo eragileekin 5 eztabaida talde egin ziren:**

- Lehenengo eztabaida taldean Bizkaiko udal ezberdinetako Udal Gizarte Zerbitzuetako teknikariek parte hartu zuten, Eudel, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko beste Zerbitzuetakoak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailekoak.
- Bigarren eztabaida taldean beste gizarte babeseko sistemetako Administrazio Publiko ezberdinetako profesionalek parte hartu zuten: hezkuntza eta osasun sistema, Ararteko eta Ertzaintza.
- Hirugarren taldean BFAko Haurrentzako Zerbitzuan zerbitzua ematen duten hiru erakundeetako teknikariek parte hartu zuten: Berriztu, Agintzari eta Bizgarri.

- Laugarren taldean 18 urte edo gehiagoko gazteek parte hartu zuten, duela gutxi Haurrentzako Zerbitzuko egoitza baliabideetan arreta eman zaienak eta egun Emantzipazio Zerbitzuetan daudenak.
- Bosgarren taldea Bilboko Entzutegiko talde judizial psikosozialeko profesionalek osatu zuten.

Aldi berean, prozesuan zehar Zuzendaritzarekin eta Haurrentzako Zerbitzuko zuzendaritza taldearekin aldizkako bilerak egin dira informazioa eta dokumentuak alderatzeko, diagnostikoa berrikusteko eta ekintza lerroak zehazteko.

Adierazi beharra dago diagnostikoa parte hartu duten elkarrizketa edota eztabaida taldeetan profesionalek jasotako balorazio eta iritzietan oinarrituz egin dela. Egindako ekarpenak esperientzian eta ibilbide profesionalean oinarritzen dira, ez Erakundearen ordezkaritzan.

Diagnostikoa alderdi positibo eta negatiboak identifikatzen oinarritu da batez ere, hobetu beharrekoa, ezabatu beharrekoa edo beste modu batera egin beharrekoa zehazten saiatuz, babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeekin esku hartzeari dagokionez. Era berean, puntu indartsuak eta Haurrentzako Zerbitzuko eta parte hartu duten gainontzeko eragileek antolaketan eta osaeran hobekuntzak adierazteko aukera eman du.

# III. KAPITULUA

## MARKO LEGALA

## Nazioarteko markoa

Haurrak babesteko politikak nahiko berriak dira, haurren kontzeptua bera denborarekin eta gizarte kategoria eta klasifikazio anitzekin eboluzionatzen joan delako. Haurrentzako hirugarren plan honen marko legalaren barruan, XX. mendean sortutako definizio eta aurrekarietan oinarrituko gara, XXI. mende hasieran amaitzeko, gure garaia.

Horrela, haurra eskubide subjektua denaren ideia ez da nazioarteko araudian agertuko 1989ko azaroaren 20an Haurren Eskubideen Hitzarmenaren Nazio Batuen Asanblada Orokorrak onartu arte.

Hitzarmen horren aurrekari dira 1924ko Ginebrako Aitorpena eta Haurren Eskubideen Aitorpena, NBEren Asanblada Orokorraren bilkuran azaroaren 20an onartutakoa Giza Eskubideen Aitorpenaren jarraipen gisa.

- ☐ 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideen Hitzarmenak hiru berrikuntza garrantzitsu ditu:

  - Estatuentzat tresna juridiko lotesle eta derrigorrezkoa bihurtzen da.

  - Haurra eskubideen subjektu denaren adiera berria dakar. Horrek ikuspegi aldaketa sakona dakar, babestuta izateko eskubideaz gain eskubide zibil eta politikoak ere dituztelako.

  - "Adingabearen interes gorena" haurren aldeko jarduera guztiak zuzendu behar dituen oinarrizko printzipio bihurtu zen.
- ☐ Europako Parlamentuak 1992ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez onartutako Haurren Eskubideen Europako Gutuna.
- ☐ Hagako Hitzarmena, 1993ko maiatzaren 29koa, haurra babesteari eta Espainiak 1995eko ekainaren 30eko tresnaren bidez berretsitako Nazioarteko Adopzioan kooperatzeari buruzkoa.

## Estatuko Legedia

1978ko Espainiako Konstituzioak haurrari dagokion araudiarekin hasi zen, bai administrazio zentralean baita ondorengo autonomia erkidegoen garapenean ere. Era berean, Espainia 1990. urtean atxiki zen 1989ko azaroaren 20 Haurren Eskubideen Hitzarmenari.

Modu honetan hiru fase handi topatu ditzakegu legediaren eremuan, Haurraren eremuan (eta babes eremuari lotutako beste araudietan) ordutik garatu direnak:

- ☐ Autonomia Estatutuak.
- ☐ 1981 eta 1987 artean emandako kode zibilaren erreformak.
- ☐ Ley 21/1987, de 11 de noviembreHorren bidez, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen artikulu batzuk aldatu ziren, adopzio, familia harrera eta babesteko beste modu batzuetan.
- ☐ Adingabea Juridikoki Babesteari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa.
- ☐ Prozedura Zibilaren Legeari buruzkoa.
- ☐ Ley 1/2000, de 7 de eneroProzedura Zibilaren Legeari buruzkoa.
- ☐ Ley 13/2005, de 1 de julio, horren bidez, ezkontzeko eskubidearen inguruko Kode Zibila aldatu zen.
- ☐ Ley 54/2007, de 28 de Diciembre, Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.

Duela gutxi onartu denez eta garrantzi handia duenez, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketa ekarri zuen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren eta haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketa ekarri zuen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen onarpena aipatu behar dugu.

Ohiko Lege Proiektu baten eta Lege Organikoko Proiektu baten bidez egindako erreforma bat da, materia organikotzat jotzen diren eremuetan aldaketak sartzen dituena. Erreforma horrek 13 arau aldatzen ditu:

- ☐ Adingabea Juridikoki Babesteari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa.
- ☐ Prozedura Zibilaren Legearen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea.
- ☐ Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa.
- ☐ Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa.
- ☐ Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.
- ☐ Kode Zibila.
- ☐ Nazioarteko adopzioari buruzko abenduaren 28ko 54/2007 Legea.
- ☐ Administrazio Auzietarako Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea.
- ☐ Pazientearen Autonomia erregulatzen duen oinarrizko azaroaren 14ko 41/2002 Legea eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko Betebeharrak.
- ☐ Langileen Estatutua.
- ☐ Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea.
- ☐ Familia Ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea.
- ☐ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.
- ☐ Hezkuntza kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa.
- ☐ Enpleguaren hazkundea hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legea.
- ☐ Autonomia pertsonala sustatzeko eta dependentzia egoeran dauden pertsonei arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.
- ☐ Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra

- ☐ Estatuko Klase Pasiboen Legea
- ☐ Prozedura Kriminalaren Legea
- ☐ Gizarte Jurisdikzioa erregulatzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legea.

## Legedi autonomikoa

Euskadiko Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki, gizarte asistentzian, adingabeak babesteko eta horien zaintzarako erakunde eta establezimenduen antolaketa, erregimen eta funtzionamenduan, gizarteratzean eta haur eta gazte politikan eskumen esklusiboa du.

- ☐ "Autonomia Erkidegoko Elkarrekiko erakundeen eta euren Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko harremanei" buruzko azaroaren 25eko 27/83 Legeak azken hauei egozten die 7c) 1 eta 2 artikuluan erakunde komunen legedia gauzatzea bere lurraldearen barruan gizarte asistentzia eta haur eta gazte politika alorretan, hauen ekintza zuzenari kalterik egin gabe.
- ☐ Abenduaren 24ko 302/1996 Dekretua. Horren bidez, nazioarteko adopzioaren erakunde kolaboratzaileen Gaitasuna erregulatu zen.
- ☐ Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateari buruzkoa. 2005eko martxoaren 30eko 50. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Urriaren 2ko 165/2007 Dekretua, Haurrei eta Nerabeei Arreta emateko Sektore Batzorde Jarraitua sortzeko, funtzionamendurako, osaerarako eta funtzioak ezartzeko. 2007ko urriaren 16ko 199. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Abenduaren 4ko 219/2007 Dekretua, Haurren eta Nerabeen Behatokiarena. 2007ko abenduaren 20ko 244. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Orden del 5 de marzo de 2008Etxebizitza eta Gizarte Gaiena. Horren bidez, Nazioarteko Adopzioaren Erakunde Kolaboratzaileen Erregistroaren organizazio eta funtzionamendua erregulatu zen. Apirilaren 1eko 56/2008 Dekretua. Horren bidez, Haurrak eta Nerabeak Defendatzeko bulegoaren organizazio eta funtzionamendu araudia ezarri zen. 2008ko apirilaren 8ko 66. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua, gizarte babesgabetasun egoeran gauden haur eta nerabeentzako egoitza harrera baliabideak erregulatzen dituena. 2008ko abuztuaren 8ko 150. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- ☐ Abenduaren 23ko 3/2009 Legea, Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateko Legea aldatu zuena. 2009ko abenduaren 31ko 251. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Azaroaren 8ko 230/2011 Dekretua. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak babesteko eta arreta emateko udal eta lurralde gizarte zerbitzuetan arrisku egoeren larritasuna baloratzeko tresna onartu zen (BALORA): 2011ko abenduaren 12ko 233. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- ☐ Decreto 277/2011, de 27 de diciembre horren bidez, Nazioarteko Adopzioaren Erakunde Kolaboratzaileen egiaztatzea eta funtzionamendua erregulatu zen.

☐ Azaroaren 21eko 245/2012 Dekretua. Horren bidez, Foru Aldundiek adingabeak adoptatzeko jarraitu beharreko jokaera prozedura erregulatu zen.

☐ Decreto 245/2012, de 21 de noviembrehorren bidez, Foru Aldundiek adingabeak adoptatzeko jarraitu beharreko jokaera prozedura erregulatu zen.

☐ Decreto 50/2014, de 8 de abril, Foru Aldundiek adingabeak adoptatzeko jarraitu beharreko jokaera prozedura erregulatu zuen Dekretuaren bigarren aldaketa.

## Foru Araudia

☐ Ekainaren 25eko 63/1985 FORU DEKRETUA eta uztailaren 2ko 211/1985 Dekretua, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoari pasatzea, adingabeen Babes, Zaintza eta gizarteratze eremukoak.

☐ Abenduaren 31ko 152/1985 FORU DEKRETUAK eskumenak eskualdatzeaeren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Ekintzako Sailaren bidez, bere lurralde eremuan Haurrak Babesteari lotutako funtzioak egiten zituen erakunde publikoa zen.

☐ Urtarrilaren 9ko 113/1986 FORU AGINDUA. Horren bidez, Harreren Batzordea sortu zen.

☐ Urtarrilaren 17ko 161/1986 FORU AGINDUA. Horren bidez, Adingabeen Balorazio Batzordea sortu zen.

☐ Apirilaren 28ko 1081/1986 FORU AGINDUA. Horren bidez, Adingabeen Balorazio Batzordea zati batean aldatu zen.

☐ Ahaldun Nagusiaren 167/1988 FORU AGINDUA. Horren bidez, Gizarte Ekintzako Sailaren titularrari honako funtzioak esleitu zitzaizkion: tutoretza, zaintza eta babesa, harrerak gauzatu, adopzio proposamena eta Erakunde Kolaboratzaileak gaitzea.

☐ Otsailaren 13ko 1602/1990 FORU AGINDUA. Horren bidez, Adingabeen Balorazio Batzordea berregituratu eta erregulatu zen, Adingabeak Baloratzeko Batzorde Teknikoa izenarekin.

☐ Apirilaren 20ko 5679/ FORU AGINDUA. Horren bidez, 1602aren akatsak zuzendu ziren.

☐ Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 29ko 42/1994 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzen deialdi publikoa onartu zen.

☐ Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 5eko 27/1996 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Araudia eta Organigrama Ofiziala onartu zen.

☐ Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 16ko 6/1999 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako diru-laguntzen deialdi publikoa onartu zen, 1999rako.

- 2000ko urriaren 31ko 9/2000 FORU ARAUA, Bizkaiko Tutela Institutuaren sorrerari buruzkoa. 2000ko azaroaren 21eko 223. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Maiatzaren 30eko 4/2001 FORU ARAUA, Bizkaiko Gizarte Asistentziaren Foru Institutuaren Estatutuak aldatzeari buruzkoa. 2001eko ekainaren 15eko 115. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 26ko 204/2001 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan Adingabearen Kontseilua sortu eta erregulatu zen. 2002ko urtarrilaren 23ko 16. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- martxoaren 13ko 3/2003 FORU ARAUA, 9/200Foru Araua aldatzeari buruzkoa,Bizkaiko Tutela Institutuaren sorrerari buruzkoa. 2003ko martxoaren 27ko 60. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 19ko 114/2005 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan Haurren eta Nerabeen Kontseilua berregituratu eta erregulatu zen. 2005eko uztailaren 29ko 143. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Abuztuaren 25eko 12525/2005 FORU AGINDUA, Gizarte Ekintzako Saileko foru diputatuarena. Horren bidez, haurrak eta nerabeak babesteko batzordea erregulatu zen, erabakiak hartzeko informazio organo kolegiatu gisa, deliberazio eta laguntzarena. 2005eko irailaren 12ko 173. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Urriaren 24ko 8/2005 FORU ARAUA, Bizkaiko Gizarte Asistentziaren Foru Institutuaren Estatutuak aldatzeari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Araua aldatzeari buruzkoa. 2005eko azaroaren 7ko 211. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 20ko 14/2007 FORU DEKRETUA. Horren bidez, haurrak eta nerabeak babesteko neurriak hartzeko Larrialdi Prozedura erregulatu zen. 2007ko martxoaren 1eko 43. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Azaroaren 12ko 136/2013 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Adopzioen Foru Erregistroa sortu zen, eta haren organizazio eta funtzionamendu arauak erregulatu ziren. 2013ko azaroaren 19ko 221. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
- Maiatzaren 19ko 70/2015 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Esku hartze Programa erregulatu zen. Familiarra. Gizarte Ekintza Sailaren seme -alaba eta gurasoen arteko indarkerian espezializatua. 2015eko maiatzaren 25eko 97. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.

## IV. KAPITULUA

# HAURRENTZAKO II. PLANAREN EBALUAZIOA

Haurrentzako II. Planak esku hartzearen oinarri den kolektiboaren beharrei egokitzearen fruitu den barne zein kanpo mailan oinarrizko gaietan hobekuntza eta aldaketa garrantzitsuak sartzeko aukera eman du. Maila globalean, Haurrentzako II. Planean zehaztutako helburuak betetzea oso altua izan da, bai Haurrentzako Zerbitzuari eta GUFEari dagokionez, helburuen ehunekoa %73koa duena, zein familia eta adingabeen esku hartzeari dagokionez, helburuen betetzea %60koa duena kasu guztietan, adopzio prozesuetan %82koa da eta %76koa sortzen ari diren behar berriei erantzuna ematera zuzendutako ekintzetan (%76). Bi helburuetan bakarrik ez da %50eko gauzatze maila lortu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Espezializatutako Zerbitzuaren arteko koordinazioa hobetzeari lotutakoetan eta programen ebaluazio kultura bat sustatu eta garatzeari dagozkionetan. Ondoren xehetasun handiagoz ikusiko dugu.

**"Haurrak babesteko sistema optimizatzeko"** helburuari lotuta, **"Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Espezializatutako Zerbitzuaren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetuz eta sustatuz, Bizkaian arrisku eta babesgabetasun egoerak baloratzeko batutako irizpide bat bereziki aintzat hartuz"** BALORA proiektua deitutakoan egondako parte hartze aktiboa baloratu behar da, Eusko Jaurlaritzak azaroaren 8ko 230/2011 DEKRETUA argitaratuz amaitu dena. Horren bidez, *Euskal Autonomia Erkidegoan Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta emateko udal eta lurralde Gizarte Zerbitzuetan arrisku egoeren larritasuna baloratzeko Instrumentua* (BALORA) onartu zen, baita hura Haurrentzako Zerbitzuan ezartzea ere. Era berean, Udal Gizarte Zerbitzuekin batera "*Arrisku eta babesgabetasun egoeretan Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen jardueraren gida*" eta "*Bizkaiko Lurralde Historikoan arrisku eta babesgabetasun egoeran Udal Gizarte Zerbitzuen eta Haurrentzako Zerbitzuaren arteko Koordinazio Protokoloa*" egin dira.

Guzti horrek lehen eta bigarren mailaren arteko osagarritasuna indartzeko eta hobetzeko printzipio eta irizpideak sendotzeko aukera eman du, baina Haurren eta Nerabeen gaineko Foro Egonkorra gauzatzearen aldeko eta bi mailen arteko koordinazioa hobetzeko aukera ematen duen ebaluazio sistema baten aldeko pausuak eman behar dira.

"**Haurrentzako Zerbitzuko barne alderdiak, organizaziokoak, metodologikoak eta esku-hartzekoak**" helburuarekin lotuta, adierazi behar da II. Plana indarrean zegoen bitartean aplikazio informatiko integrala diseinatu eta ezartzen hasi dela, ARDATZ, Sailan garatutako Zerbitzu eta Programa guztiak sartuz kasu eta prozesuak kudeatzeko aukera ematen duena.

Gainera, Haurrentzako Zerbitzuko Egoitza Harrera Unitatearen dependentzia funtzionala sendotu da eta egoitza baliabideak kudeatzen dituzten erakundeekin hitzarmenen birpasoa eginda, elkarrekiko prozedura eta protokoloak ezarriz. Era berean, Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzutik Dekretuko zentro Sarearen baldintza fisiko-

arkitektonikoen egokitzapenaren gaineko azterketa egin da, eta ikuskaritza prozesuak abiarazi dira.

Gauzatu gabeko ekintzen artean, Esku-hartze Manualeko eguneraketa eta langile berrien Harrera Manualaren hobekuntza adierazi. Sartutako hobekuntzez gain, beharrezko esku hartze teknikoak gauzatzeko espazioak egokitzen jarraitu beharra dago.

"**Familia banaketa egoerentzako lehen mailako babes neurri gisa Familia Hartzearen garapenarekin jarraitzeko**" helburua betetzea birpasatzen badugu, Larrialdiko Familia Hartze programa epealdi honetan modu egokian gauzatu eta garatu dela ikus daiteke.

Bestalde, espezializatutako laguntza hau behar duten familia eta adingabe guztiei heldu ez bagara ere, Familia handiko Harrera prozedurak asko indartu direla esan daiteke, familia hartzaileen hezkuntza lana erraztuz. Familia Harrera prozesua hasten zuten familientzako formazio programa bat jarri dela adierazi behar da, erabiltzaileenganako arretaren kalitatean aurrerapen nabaria dela uste dena.

Familia harreretan kalitatezko prozeduren garapenarekin lotuta, aurrerapen nabariak eman direla adierazi behar da. "*Familia Harreraren Esku hartze Gida*" amaitzen ari da, Familia Harreraren talde tekniko osoaren inplikazioarekin egin dena, eta "*Familia Harrerarako haurrak eta nerabeak prestatzeko protokoloa*".

Era berean, familiak hartzeko hilero sentsibilizazio kanpainak, jardunaldiak eta hitzaldi irekiak egin dira. Gainera, hedapen ekintza horien markoaren barruan beste erakundeekin koordinazioa indartu da.

Haur eta Nerabeentzako III. Planean garatu beharreko ekintzen artean, Espezializatutako Familia Harreraren bultzada, familia harreran hasiera bateko banaketaren ostean haurren familia leheneratze lana eta Familia Harreran esku hartze emaitzak eta prozesuen ebaluazioa azpimarratu behar da.

"**Adopzio prozesuak kalitate bermeekin eta apurketa eta gatazka arriskuak gutxituz garatzeko**" helburua berrikusten badugu. Haurrentzako Zerbitzuko Nazioarteko Adopzio Eremuan ISO 9001-2008 ziurtagiria lortzea

mugarri bat izan zen kalitatea hobetzean. Modu paraleloan, Bizkaian Adopzioa Laguntzeko Programa ezarri zen, eta etorkizuneko adopzio hartzaileen formazio ikastaroak egitea barne hartzen zuena egokitasun aitorpena eskatzeko ezinbesteko irizpide bezala, eta hori ezinbesteko hobekuntza izan da.

"**egoitza harrera baliabideak berregituratzen jarraitu, haurren eta nerabeen behar anitzak erantzuteko gai den sare bat osatzeko kalitate printzipioetan oinarritutako batutako kudeaketa baten azpian**" helburuarekin lotuta. Egoitza harrera baliabide ugari sortu eta aldatu dira. Hauetako aldaketa batzuk Haurrentzako Zerbitzuan aurreikusi, diseinatu eta baloratzen ziren eta beste batzuk beharrei egokitzearen eta gizarte babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza harrera baliabideak erregulatzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuari pixkanaka egokitzeko arreta emandako herritarren garapenaren ondorioz sortzen joan dira. Honi gehituta, baliabide berriak sortu dira eta hirugarren batekin plazak hitzartu dira, ezgaitasun larriak dituzten haur eta nerabeei Arreta emateko Programa deitutakoan.

Egoitza harrera tresna sarea adingabeengan hautemandako behar berrietara zein dekretutik sortutako egiturazkoetara eta teknikoetara egokitzeari dagokionez, adierazi behar da plan zehatz eta egituratu bat diseinatu eta proposatu zela, aldaketak gidatu eta fase eta denborak zehaztuko dituena, praktikan jartzea onartu ez bazen ere.

Baita ere adierazi behar da 6 hilabetetan zehar Etxe Arduradun irudia modu esperimentalean ezartzea Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFE) kudeatutako Egoitza Harrera 10 Baliabideetan.

Egoitza harreraren tresna sare osoaren kudeaketa eta ikuskaritza bateratzeari erreferentzia eginez (publikoa eta pribatua), adierazi behar da GUFEari egoitza harrera sare bakar bat zuzentzeko agindua eman zitzaiola, koherentea, konpaktua eta Egoitza Harrera Unitatetatik ikuskatutakoa, eta horrek kolaborazio hitzarmenak bateratzeko eta homogeneizatzeko orduan eta Bizkaiko Egoitza Harrera Sarea Sare bakar gisa ikusteko aurrerapen nabarmena izan da.

Hitzarmenen kostuak bateratu, razionalizatu eta egokitzeko azterketa ekonomikoari dagokionez, adierazi behar da zentroetako "*Gastu eta diru-sarreren egitura egiaztatzeari*" buruzko txosten ezberdinak egin direna, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Auditoria Zerbitzuak egindakoak. Era berean, auditatutako urteko egiaztatzeko kontuak derrigorrez aurkeztea ezarri da. Analisi hauen ondorioz, kolaborazio hitzarmenak

egokitzen joan dira. Gastu kontzeptuak eta esleitutako kantitateak behin betiko bateratu eta argitzen duen proposamen bat egiteke dago.

GUFEren Sare osoan profesionalen formazioa bateratzeko beharrari dagokionez, adierazi behar da Haurrentzako Zerbitzuko koordinatzaile guztiak eta Sare osoko hezitzaileak bildu dituzten topaketa tekniko eta formazio topaketa puntualak egin direla. Parte Hartze Foro ezberdinak ezartzeak (BDAAen Foroa, Nerabeen Foroa eta Oinarrizko Sarearen Foroa) elkarrekiko formazioko gabezi hori modu batean ordezkatu du.

Bestalde, epe horretan, aurretik adierazi den bezala, egoitza baliabideetan beharrezko dokumentazioa homogeneizatzeko eta eguneratzeko orduan aurrerapen nabarmena egin da, bai
131/2008 Dekretuari dagokionean, egoitza harrera baliabideak erregulatzen dituena, baita
kolaborazio hitzarmenetan ezarri diren alderdi osagarrietan ere. Zentzu honetan, egoitza harrera baliabide guztientzako protokoloak sortu dira, Sare osoko profesionalen parte hartzearekin.

Dokumentazioko aurrerapen honek Sarearen baliabide ia guztien praktikan programa sozioedukatibo ugari garatzea agerian uzten du, eta bateratutako Egoitza Harrera Gida sortu ez bada ere, egoitza harrera baliabide sare osoan eskubide eta betebeharren gutuna ezarri da.

"**Haurrei eta familiari emandako arretan hobekuntza etengaberako oinarrizko irizpide gisa programa eta esku hartzeak ebaluatzeko kultura garatzea**" helburuari dagokionez. Nazioarteko adopzio prozeduretan kalitatea kudeatzeko eredu bat ezartzea adierazi.

Bestalde, kontratatutako programa bakoitzarentzat programak ebaluatzeko diseinua hobetzeko (prozesua eta emaitzak), azpimarratu behar da programak garatzean kolaboratzen duten erakundeak kontratatzeko baldintza teknikoen agiri guztiek ebaluazio sistemaren atala barne hartu dutela. Bertan, estaldura. prozesu eta emaitzen ebaluazio bat egiteko exijitu zaio kontratatutako entitateari. Lortutako emaitzen araberako kontrola, ikuskaritza eta erabakiak hartzea egiteke legoke, baita programa guztientzako sistema homogeneo bat ezartzea ere.

Honi lotuta, Bizkailab programaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko kolaborazio hitzarmenaren barruan, 2011tik Haurrentzako Zerbitzuaren jarduera eremuarekin lotutako ikerketa ildo ezberdinak abiarazi dira (Adopzioa, Familia Mantentzea, etab.).

"**Haur eta familietan sortzen ari diren behar berriei erantzuteko eskuragarri dauden programa eta esku hartzeak eguneratu eta indartzeko**" helburuari dagokionez, adierazi behar da LGAAen handitzeari arreta emateko egokiak diren konponbideak garatzeko, esku hartze ekipoak profesionalizatzen joan direna eta gainontzeko Harrera Zentro Sareetan homologarriak diren arreta ratioak lortu direla, azpiegiturak nabarmen hobetuz. Honi lotuta, 14 urtetik beherako adingabe arau hausleekin esku hartzea jorratzeko prozedura bat zehaztu zen eta egokia denean, kasuen balorazioak Udal Zerbitzura bideratzea.

Babes sisteman arreta jaso duten gazteek bizitza heldura igarotzeko laguntza zehatzei dagokienean, erabaki garrantzitsuak hartu dira, hala nola, hemeretzi urte eta erdiak arte Haurrentzako Zerbitzuko egoitza baliabideetan egoteko aukera, luzatzeko aukerarekin. Era berean, Haurrentzako Zerbitzuaren menpeko egoitza baliabide bat sortu da, Haurrentzako Zerbitzuko egoitza baliabideen eta beste zerbitzuen menpekoen arteko igarobidea errazten duena. Emakumearen eta Familia Esku hartzearen Zerbitzuak eta Gizarteratzeko Zerbitzuak gizarteratzen laguntzeko programak eta emantzipazioaren egoitza programak abiarazi dira, Babes Sisteman arreta emandako pertsonei zuzendutakoak.

Bestalde, programa zehatzak handitu eta hobetu dira, hala nola, Nerabeen Espezializatutako Hezkuntza Programa eta Jakinarazpen eta Lekualdatzeen Programa. Era berean, babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeak diren eta haurdun dauden nerabeei emandako arretaren kasuan, kasu gutxi hauei emandako erantzuna Haurrentzako Zerbitzuaren baliabideetatik ematen da.

"**Beste sistema eta zerbitzu batzuekin jardueren koordinazioa hobetzeko**" helburuari dagokionez, azpimarratu behar da hezkuntza sistemarekin lotuta haurren babesgabetasun kasuak hauteman eta jakinarazteko existitzen diren protokoloak egonkortu direna, baita eskola absentismoa ere. Era berean, Hezkuntza Partzuergo Konpentsatorioarekin batera, bi programa berri ezarri dira: Osatuz eta Bideratuz.

*Osasun sistemarekin* koordinatzeari dagokionez, Haurrentzako Zerbitzuarekin interakzio handiagoa duten Ospitaleekin ekintza zehatzak egin dira (Gurutzetako Ospitalea eta Basurtuko Ospitalea). "*Haurrentzako Zerbitzuak arreta emandako babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen Buru Osasunaren arretarako Osasun Sistemaren jarduera Protokoloaren*" jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitu da.

Segurtasun indarrekin kolaboratzeari dagokionez, ez dago sinatutako edo ezarritako protokolorik, eta koordinazio bilerak egin dira (Gobernuaren Ordezkariordetza, Atzerritarren Brigada, Ertzaintza, etab.) esku-hartze eta harreman pautak ezartzeko.

Sistema judizialari dagokionez, Adingabeen Fiskaltzarekin aldizkako bilerak eta Gazte Justizia Zerbitzuarekin harreman puntualak izan dira.

## V. Kapitulua

# EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

## V.1. Haurrentzako Zerbitzuak 2015ean garatutako zerbitzu eta jardueren datuak.

**Babesgabetasun**[3] kontzeptuak adingabeak zaintzeko ezarritako babes betebeharrak ez betetzeari, modu ez egokian edo ezinezko betetzeari berariazko erreferentzia egiten dio. Betebehar horiek gauzatzen dituzten pertsonek -gurasoak eta tutore edo zaintzaileak- egiten ez dituztenean edo modu egokian egin ezin dituztenean barne hartzen du. Zentzu honetan, haur edo nerabe baten eskubideak aurrekoak ez diren pertsona batek urratu ahal baditu ere (indarkeria fisikoa, ahozkoa, sexuala, etab. jasoz), urraketa hori ez da babesgabetasun egoera bat -hala ere, pairatzen duen haur edo nerabeak laguntza jasoko du.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta Emateko Zerbitzuek babesgabetasuna dagoela uste izan beharko dute egoera hori kaltetutako adingabearen zaintza edo babesa gauzatzen duten pertsonei edo gurasoei dagozkien babes betebeharrak modu ez egokian gauzatzeak sortu duenean, hau da, pertsona hauek beraiek sortu edo haurra edo nerabea hirugarrenek egindako eskubideen urraketetatik edo erasoetatik babesteko gai ez direnean.

Legeek adingabeak asistentzia morala edo materiala ez dutenean babesteko ezarritako babes betebeharrak gauzatu ezinagatik edo modu ez egokian gauzatzeagatik, edo ez betetzeagatik sortutako babesgabetasun egoera bat egiaztatzen den kasuetan (Haurrak eta Nerabeak babesteko eta arreta emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 56. art; Kode Zibilaren 172.1 art.), babes administratiboko neurriak hartuko dira, bere ongizatea babesteko asmoz. Hauek, aitaren edota amaren edo tutore edo zaintzaileen -administrazio tutoretza denean- guraso-agintea behin behinean etetea sor dezakete.

2015ean Haurrentzako Zerbitzuaren Memorian jasotako datuen arabera,

---

[3] Haurren babesgabetasuna sor dezaketen egoerak:

a) Gurasoek/tutoreek babes betebeharrak gauzatzeko aldi baterako edo behin betiko ezintasuna, heriotzagatik, espetxeratzeagatik, gaixotasun fisiko edo burukoagatik, ezgaitzen duen toxikomaniagatik, edo antzeko arrazoiengatik.

b) Gurasoek/tutoreek babes betebeharrak ez betetzea: amatasuna/aitatasuna ez onartzea/ukatzea, adingabea erabat uztea, edo antzeko arrazoiak.

c) Gurasoek/tutoreek babes betebeharrak modu ez egokian gauzatzea (ekintza edo ez egiteagatik): indarkeria fisikoa, utzikeria fisikoa, indarkeria psikologiko/emozionala, sexu abusua, galbideratzea (sexu esplotazioa edo delinkuentziara bideratzea), gizartetik kanpoko guraso ereduak direla eta galbideratzea, lan esplotazioa, jaio aurreko indarkeria, beste batzuk.

2015eko abenduaren 31n Haurrentzako Zerbitzuan irekita zeuden haur eta nerabeen espediente kopurua 1687 zen. 2015ean 953 ireki ziren eta 12 berrirekitzeak izan ziren. Zifra honetan babes neurririk hartu nahi ez duen haur edo nerabe baten arrisku larriko egoera hautematen diren kasuak sartzen dira, eta beraz, familia nukleotik urruntzea edo adingabearen zaintza edota babesa hartu den kasuak ere. Era berean, arrazoi ezberdinengatik 859 espediente itxi dira (ez da larritasun handiko egoerarik hauteman, adin nagusitasunera heltzea, Zerbitzu honen esku-hartzea arrazoitu zuten arrazoiak desagertzea, familiak beste lurralde historiko edo Autonomia Erkidego batera lekualdatzea...)

2015eko abenduaren 31n Bizkaiko Foru Aldundiak zaindutako haur edota nerabe kopurua 791 da. Horietatik %59 gizonak dira eta %41 emakumeak.




Adingabe baten zaintzari dagokionez, adierazi behar da Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen duela, bai zaintza bat bere gain hartzearen ondorioz, gurasoak edo tutoreek egoera larriak direla eta adingabea zaindu ezin dutenean hala eskatuta, berehalako arreta emateko beharraren ondorioz behin behineko zaintzagatik edo legeak hala dionean epaitegiaren erabakia dela eta. Gizarte Ekintza Sailak bere gain hartutako zaintza familia harreraren bidez edo egoitza harreraren bidez gauzatzen da. Aldundiak 2015eko abenduaren 31n zituen zaintzak 106 ziren.

Bestalde, babesgabetasun egoera ekiditeko edo horren ondorioz euren zaintza edo babesa Bizkaiko Foru Aldundiak onartu behar izan duen haur eta nerabeei arreta emateko Haurrentzako Zerbitzuak eta pairatzen ari diren babesgabetasunaren larritasuna dela eta euren senideetatik urrundu behar izateko arrisku larrian dauden adingabeei arreta emateak, zerbitzu/baliabide ezberdinak ditu:

### Familia harrera

Familia harrerei dagokienez, 2015. urtean Haurrak eta Nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legea onartu zen, eta 2015eko abuztuaren 18an indarrean sartu zen. Araudiak modalitateak eta familia harrera motak aldatzen ditu, larrialdikoa, behin behinekoa edo behin betikoa izatera pasaz. Dena den, 2015eko memorian datuak legearen onarpenaren aurretik indarrean zeuden modalitateen arabera agertzen ziren (sinplea, behin betikoa eta adopzio aurrekoa).




Harrera Sinpletzat jotzen dira iragankorrak, bai egoeraren balorazioan adingabea bere familian bertan birgizarteratzea aurreikusten delako bai egoera egonkorrago bat aurreikusten duen babes neurri bat hartzen den bitartean.

Behin Betiko Harreratzat jotzen dira haur edo nerabearen eta bere familiaren adina edo beste egoera batek hala aholkatu eta adingabeari arreta ematen dioten zerbitzuek hala jakinarazten dutenean (Epaitegiari harrera familiari zaintza eskumenak emateko eskatu

ahal zaio).

Azkenik, Adopzio aurreko Harrerak erakunde publikoak gauzatzen ditu, horrek haurraren edo nerabearen adopzio proposamena agintaritza judizialaren aurrera eraman ondoren, hartzaileek adopziorako beharrezko irizpideak betetzen badituzte, aukeratuak izan badira eta Erakunde Publikoari adopziorako baimena eman badiote, eta haur edo nerabea adopziorako egokia den egoera juridikoan badago, betiere.

Familia harrerei dagokienean, adierazi behar da 2015eko abenduaren 31n harrerak 327 zirela. 75 kasu berri gauzatu ziren, gehienak behin betikoak.

Adingabearekiko harremana aintzat hartzen badugu, aipatu behar da %67 familia handiko harrerak zirela, hau da, haur edo nerabearekin aurretiko lotura emozionala eta senide harremana dagoenean.




## Adopzioa

Adopzioa familia eskubide erakunde bat da. Horren bidez, pertsona bat filiazio biologikoaren ondorio berdinak dituen beste pertsonen familian osorik sartzen da, haurrak jatorriko familiarekin zituen lotura juridikoak apurtuz.

Adopzioekin lotuta, adierazi behar da 2015ean gauzatutako adopzio nazionalen kopurua 13 izan zela, eta nazioartekoa 18.




Jaioterriaren arabera, hauxe da banaketa:




## Egoitza harrera

Egoitza Harrera zaintzeko neurri alternatibo bezala definitu dezakegu, izaera administratibo edo judiziala duena, eta helburu duena euren familian behar afektibo eta hezkuntza beharrak estali ezin diren haur eta nerabeei egoitza inguru batean arreta osoa eskaintzea, aldi baterako behintzat. Beraz, euren etxeetan egon ezin diren adingabeei zuzendutako babes neurri bat da.

Horren bidez, egoitza eta bizikidetzarako leku bat ematen zaie, euren beharrak asetzen dituena. Harrera horretara zuzendutako etxebizitza edo egoitza batean egiten da (bizikidetza unitate baten etxebizitzan ematen den familia harreratik ezberdinduz), kualifikazio zehatza duten eta euren zerbitzua egunean 24 orduz ematen duten profesionalen arretarekin.

Egungo sarea honela egituratzen da:

- Guztira 330 plaza eskaintzen dituzten 31 zentro dituen Oinarrizko Sarea.
- Guztira 58 plaza eskaintzen dituzten 6 zentroko nerabeei harrera emateko Sare Espezializatua.
- Guztira 29 plaza eskaintzen dituzten 4 zentroko ezgaitasun handia duten adingabeei harrera emateko Sare Espezializatua.

2015ean 860 haur eta nerabeei eman zitzaien arreta, horietatik 304 Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak izan ziren (BDAA). Adingabeen profilean aldaketa nabarmena eman da. Batetik, BDAA kopurua nahikoa jaitsi da azken urteetan, eta bertako adingabe kopurua nahiko igo da.



Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarren taldean sartutako adinaren araberako banaketa ondorengo koadroan ikus dezakegu:




### Familia esku-hartze programak

Familia esku-hartze programa ezberdinak existitzen dira:

- ☐ Sexu abusuen kasuan arreta psikologikoa emateko Espezializatutako Programa (SEIP).
- ☐ Haurren babesgabetasun kasuetan familia esku-hartzean Espezializatutako Programa (PIF).
- ☐ Nerabeekin esku-hartzean Espezializatutako Programa (PEA).
- ☐ Adingabeekin eta ijitoekin esku-hartzeko programa.




**Sexu abusuen kasuan arreta psikologikoa emateko Espezializatutako Programa (SEIP).**

Programa hau Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta 0 eta 18 urte arteko euren seme-alabek Haurrentzako Zerbitzuan babes espedientea, sexu abusu froga edo zantzuekin, irekita duten familiei zuzenduta dago.

Familia osoan arreta zentratzen duen programa da, kide bakoitzari, eta beharrezkoa denean haren hartzaile diren adingabeei banakako arreta psikoterapeutikoa eskaintzen die.

Programa horretan arreta jaso zuen adingabe kopurua 41 izan zen, eta horietatik 2015ean programara guztira 6 gizon eta 7 emakume bideratu dira, eta %62,5ean familia barruko sexu abusuko kasuak ziren (familia handia zein aita edo amaren bikotea barne hartzen duena, berriz osatutako familien kasuan).




☐ Haurren babesgabetasun kasuetan familia esku-hartzean Espezializatutako Programa (PIF).

Programaren helburu orokorra familiek osatzen duten adingabeen beharren estaldura bermatzeko gaitasuna lortzea da, alderdi guztietan, familia esku-hartzearen bidez. Programa honen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren familiei arreta ematera zuzenduta daude, euren 0 eta 18 urte arteko seme-alabek Haurrentzako Zerbitzuan espedientea irekita dutenak, haur edo nerabea jatorrizko familiarekin bizi bada edo babes neurri bezala aldi baterako banatu badute.

Arreta emandako adingabe kopurua 567 izan zen, eta arreta emandako familiak 455. Horietatik erdiak Oinarrizko Errenta jasotzen du eta %53 inguru guraso bakarrekoak. Jatorriari dagokionez, adierazi behar da %30 immigranteak zirela.




☐ Nerabeekin esku-hartzean Espezializatutako Programa (PEA).

Programa hau 12-18 urte arteko nerabeei zuzenduta dago, euren ezaugarri pertsonalak, familiarrak edo sozialak direla eta inguru irekian esku-hartze sozioedukatiboa behar duten arrisku larriko edo babesgabetasun faktoreak agerian uzten dituztena, baita nerabeen familiak ere, batez ere gurasoak, harremanetarako arazoak dituztenak eta horiek konpontzeko laguntza eta orientazioa behar dutenak, osoa den arreta espezializatuarekin, Haurrentzako Zerbitzuan babes espedientea baldin badute.

2015ean Haurrentzako Zerbitzuak 23 eskaera egin zituen (13 emakume eta 20 gizon), eta guztiak positiboki baloratu ziren esku-hartzeko, eta 18 abiarazi ziren (indarrean jarraitzen zuten 2015eko aurrekoei gehituta 33 izan zirenak urte osoan).




☐ Adingabeekin eta ijitoekin esku-hartzeko programa.

Ijitoen ezaugarri propioek kultura arteko hurbilketarako aukera ematen duen jorratze zehatz bat behar izan dute, helburu bakar bat bermatu ahal izateko, adingabeen ongizatea, kolektibo honek askotan pairatzen dituen bazterketa ekiditeko.

Horregatik guztiagatik, lana Ijitoen berezko ikuspegitik egiten da eta diziplina anitzeko gauzatzetik, gurasoen edo zaintzaile edo tutoreak hartzeko aukera eman edo handitzen duena, familia haur edo nerabearen babes eta berme inguru egoki bat izateko. 2015ean 105 adingabe eta 39 familiei arreta eman zitzaien, eta horietatik %91k Oinarrizko Errenta jasotzen zuen, eta guztiak ikasketarik gabekoak ziren.




## Familia harrera Laguntzeko Programa

Programa honen helburu nagusia da Larrialdiko familia harrera sustatu, esku-hartu eta laguntzea, aldi baterakoa edo behin betikoa, Beste familia batean osotasunean eta Haurrentzako Zerbitzuak berak hala eskatuta.

2015ean 196 adingabeekin, 164 familia harrerekin eta 146 familia biologikoekin esku hartu zen, eta 2015eko abenduaren 31n adingabeen 29 espediente eta familien 46 espediente itxita zeuden.



## Adopzioa Laguntzeko Programa

Programa honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren harrera familia guztiei arreta ematea, baita horietan sartzen diren haurrei ere, familia integrazioa errazteko asmoz, bai prozesuaren hastapenetan baita ondoren sor daitezkeen eskaeretan ere.

Adopzioan Laguntzeko Programak arreta emandako kasu kopurua 77 izan zen, eremu honetan esku-hartze bolumen handia mantenduz (jardueraren %81). Adierazi beharra dago kasu hauetako gehienak "Larritasun kasuak" deitutakoei dagozkiela, eta horiek programaren baliabide guztien esku-hartze maila handiagoa behar dutela.

Era berean, 2015ean Jatorrien Bitartekaritza Alorrean adopzioan hartutako 18 pertsonei arreta eman zitzaien (20 2014an), programaren arreta bolumenaren %18. Eremu honetan kasuen bideratze bolumen handiena urteko lehenengo sei hilabeteari dagokio (6 kasu), eta 2015eko bigarren sei hilabetean bideratutako kasu bakarra egon da.

Izan ere, 2015ean 95 kasuetan esku hartu zen bai Bitartekaritza eremuan baita Orientazio eta banakako edota familia Esku hartzean ere, eta horrek programan arreta bolumena handitzea ekarri du.  Arreta emandako kasuen tipologiak larritasun kasuen arreta bolumen handia mantentzen jarraitzen du, %38 inguru.



## V.2. Haurrentzako Babes Sistemaren funtzionamenduaren ebaluazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan

Atal honetan babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeekin egindako esku-hartzearekin lotutako indar eta ahultasun puntuak jasotzen dira, Haurrentzako III. Planak beharrei erantzuteko jorratu beharreko alderdiak zehazteko asmoz.

Era berean, Haurrak Babesteko Sistemaren funtzionamendu onean eragin positibo edo negatiboa duten alderdiak identifikatu dira, bai Haurrentzako Zerbitzuarenak baita barne eta kanpo funtzionamendua hobetzeko giltza diren faktoreak identifikatzeko eragina duten gainontzeko eragileenak ere.

Egindako analisia elkarrizketa, eztabaida talde eta tailerren gogoetetan oinarrituta egin da, non euren esperientzia propiotik adingabeen eta euren familien arreta hobetzeko ikuspegia eskaini duten pertsonek parte hartu duten.

### V.2.1. Haurrekin eta nerabeekin esku hartzea

#### *V.2.1.1. Haurrak Babesteko jarduera printzipio gidariak*

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera Haurrak Babesteko eremuan, Esku hartze Gidaliburuan jasotzen den bezala, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Legean jasotako printzipio gidariek gidatzen dute, horien artean **haur edo nerabearen interesaren lehentasuna.** Ildo honetan, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatu zuen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak adingabearen interes gorenak lehentasuna izatea garatzen eta indartzen du, eta interpretazio ezberdinak jaso dituen kontzeptu juridiko bati edukia ematen dio, ezarriz "*adingabeak, berarengan eragina duen neurri bat hartzen denean, bere interes onenak ebaluatzeko eskubidea du, eta beste interes batzuk egotekotan, konponbide bat topatzeko haztatuak izatekoa*".

Era berean, legeak dio "*aldi berean doazen interes legitimo guztiak errespetatzea ezinezkoa bada, adingabearen interes gorena beste edozeinen gainetik egon beharko du. Edozelan ere, hartutako neurri eta erabakiek sartutako beste pertsonen oinarrizko eskubideak baloratu beharko dituzte".* Beraz, haur edo nerabearengan eragina duten ekintza eta erabaki guztietan adingabearen interes gorena kasu bakoitzean interpretatzen eta ezartzen laguntzen duten irizpideak zehaztea beharrezkoa da.

***Adingabearen zentralitatea*** Haurrentzako Zerbitzuarentzat zuzenean edo zeharka lan egiten duen profesionalen taldearen irizpideen esku-hartzerako beste alderdi klabea da. Izan ere, 8/2015 Lege Organikoak zehatzago garatzen

du, 9. artikuluaren aldaketaren bidez, "*adinagatik, ezgaitasunagatik edo edozein egoeragatik bazterketa jasan gabe edozein administrazio, epai edo bitartekaritza prozeduran entzuna izateko oinarrizko eskubidea, adingabea kaltetua denean eta bere inguru pertsonalean, familiarrean edo sozialean eragina duen erabaki batera daramana, bere iritziak aintzat hartuz, adinaren eta heldutasunaren arabera*". Ildo honetan, oinarrizko eskubide hau bermatzeko moduan sakondu beharra dago, bereziki haur edo nerabeak bere kontura eskubidea gauzatzeko nahikoa heldutasun ez duenean, adingabeen eta bere gurasoen edo tutoretza duten pertsonen interesak ez nahasteko. Horrek adingabea erdigunean jartzen duen esku hartze batean egokien diren neurriak hartzeko beharrezko baliabideak izatea eskatzen du.

### *V.2.1.2. Kronizitatea jorratu: Prebentzio eta esku hartze goiztiarra*

Diagnostikoan parte hartu duten adingabeak babesteko eremuan adituak diren pertsonek azpimarratu dute egungo Gizarte Zerbitzuen ikuspegiak ez duela kronizitatearen erronka nahikoa jorratzen. Modu aringarrian esku hartzen da, baina ez bazterketa edo babesgabetasun fenomeno zehatz batzuk epe ertain edo laburrean deuseztatzeko aurreikuspenarekin. Hau da familia profil zehatz batzuetan, belaunaldiz belaunaldi, bazterketa egoerak eta familia horietako adingabeak babesgabetasun egoeran jarraitzeko arrazoietako bat.
Ildo honetan, esku hartzearen ikuspegia berrikusi beharko litzateke, egoera zehatzetan esku hartu bakarrik ez, baizik eta etorkizuneko ikuspegi handinahi bat sartzea ere, bazterketa, ahulgarritasun eta babesgabetasun fenomeno batzuk deuseztatzeari lotutako esku hartze oso baterako aukera ematen duena. Zentzu honetan, emaitzen ebaluazioan oinarritutako konponbide teknikoak eskaintzen dituen gai honen gaineko gogoeta sakona egin beharko zen, eta gurasoen ezgaitasuna jorratzeko neurri estrategikoak planteatzen dituena, esku hartze sozioedukatiboko neurriak nahikoak ez direla ematen duelako.
Honi lotuta, inplikatutako aldeek baieztatu dute oinarrizkoa dela arreta goiztiarra eta prebentzioa lantzea, kasu askotan lehenengo esku hartzea nerabezaroan egiten baita, kalte psikopatologikoa handia denean eta esku hartzea egiteko une egokiena ez denean. Orokorrean, Haurrentzako Zerbitzuak zein Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako prebentzio lanaz gain, prebentzio esku hartzea egiteko zailtasuna adierazi da.
Era berean, eremu judizialetik bereziki azpimarratu da esku hartze goiztiarra indartzea, zoritxarrez, kasu gehienak arau hausteak egin dituzten adingabeenak direlako. Ildo honetan, euren ikuspegitik, familiekin esku hartze handiagoa beharrezkoa da kasuen judizializazioaren prebentziorako. Adingabeen Fiskaltzatik eta Talde Psikosozial Judizialetik 12 edo 14 urte bete aurretik frogatutako ebidentzia esku hartze programak martxan jartzea proposatu da, eta adin horretatik aurrera, arazo konplexuak dituztenen ondorioak arintzeko baliabideak jarri.

### *V.2.1.3. Esku hartzea egituratu, prozesuak definitu, zabaldu eta ebaluatu*

Esku hartzeko Gidaliburuak egindako jarduerak neurri handi batean egituratzeko aukera eman zuen, babesgabetasun egoeren aurrean esku hartzeko prozedura orokorra zehaztuz, non esku hartzearen garapenean fase ezberdinak jasotzen diren: harrera eta ikerketa, hasierako ebaluazioa, erabakiak hartu eta kasu planaren diseinu eta ezarpena eta espedientearen itxiera. Aldi berean, Haurrentzako Zerbitzuaren atal ezberdinetan[4] esku hartze prozesu eta protokoloak garatzen joan dira. Beraz, esku hartzearen zati handi bat prozeduratu da eta koordinazio protokoloak existitzen dira, baina horrek ez du garatutako esku hartze motak behar duen malgutasuna bermatzea galarazten. Honi lotuta, Haurrentzako Zerbitzuaren programak kudeatzen dituzten erakundeek adierazten duten bezala, prozesu guztien administrazio izapidetzea azkartzeko esfortzu garrantzitsua egiten da.

Horretaz gain, Haurrentzako Zerbitzuko teknikariek metodologiak neurri handiago batean estandarizatu eta sistematizatzeko beharra eskatzen jarraitzen dute, baita konpartitutako esku hartze irizpideak zehaztea ere, atal bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen dituztenak. Egindako esfortzuez gain, talde teknikoaren arteko esku hartzean ezberdintasunak egoten jarraitzen dute, giza faktoreak esku hartzean paper garrantzitsua duelako. Ikuskaritzak, alderatze teknikoak eta talde lanak faktore hori neurri handiago batean zuzendu beharko lukete.

Gidaliburuan ere haurrenganako tratu txarrak/bazterketa, larritasunaren ebaluazioa eta babesgabetasun egoeretako arriskuaren tipologia ezberdinak jaso ziren, eta horrek Haurrentzako Zerbitzuaren profesionalen arteko irizpideak bateratzeko aukera eman zuen. Hala ere, oraindik

[4] Haurrentzako Zerbitzua hiru ataletan egituratzen da:

- Harrera, Balorazioa eta Orientazioa
- Familia Harrera eta Adopzioak
- Egoitza harrera Unitatea

egoera eztabaidagarriak ematen dira lehen eta bigarren mailaren arteko larritasun maila baloratzeko orduan, gehiago landu beharko zena. Ildo honetan, Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Arreta Emateko Udal eta Lurralde Gizarte Zerbitzuetan (BALORA) arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna Baloratzeko instrumentuak existitzen den babesgabetasun maila eta dagozkion erabakiak hartzea baloratzeko irizpide komunak eskaini ditu, eta hori aurrerapen handia izan da irizpideak bateratzeko orduan.

Esku hartze irizpideei dagokienean, Gidaliburua aurrerapen handia izan zen haur edo nerabearen aurrerapenen arabera hartutako neurrietako irizpideetan. Garrantzitsua da, beraz, Haurrentzako III. Planean lanean jarraitzea, esku hartzean irizpideen bateragarritasun handiagoa lortzeko erabakiak hartzean eragina duten alderdiak aztertuz eta gogoetarako espazioak sortuz, erabakiak nondik eta nola hartzen diren baloratzeko aukera ematen dutenak (egoera pertsonala, beldurrak, esperientzia...). Hau gehienek azpimarratzen duten gaia da. Zentzu honetan, egoitza harrera baliabideen sarearen sorrera positiboki baloratu da, erakundeak norabide zehatz batean derrigortzen ez baditu ere, erakundeen arteko espazioak konpartitzen eta konpartitutako irizpide eta estiloak biltzen laguntzen du.

Esku hartzea jorratzeko metodologiari dagokionez, iritzi orokorra da kualifikazio eta konpetentzia altuko esku hartze ekipoak existitzen direla, egin beharrekoaren gaineko helburu argiak dituztenak baina jorratzeko moduak bezain argi ez daudenak, hau da, nola burutu. Ildo honetako eskari nagusienetako bat egungo "egiteko moduak" birpasatzea da, eta esku hartzea modu egokienean gauzatzeko eztabaida sortu.

Era berean, bateratzea indartzea beharrezkoa da, baina oraindik lana dago emaitza horien ebaluazioa egokitzeko, egindako esku hartzeen eraginkortasunari dagokionez. Ildo honetan, kanpo ebaluazioak egitea aipatu da, eraginkorrak izaten ari diren programa eta prozesuak ezartzeko aukera ematen dutenak.

### *V.2.1.4. Hautemate eta balorazio sistemak*

**Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek** babesgarritasunaren ahulgarritasun egoerak - arrisku arina, ertaina, larria eta babesgabetasuna- hautematen eta jakinarazten duten papera klabea da egoera hauek azkar hauteman eta jakinarazteko programa eta ekintza zehatzak dituztelako. Era berean, babesgabetasun egoera posibleen jakinarazpen guztiak ikertzen dituzte, larrialdiko babes neurri bat hartzeko beharra dutenak,

bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuak, haurra adopzioan emateko nahia adierazten duten haurdun dauden amak, eta familia barruko sexu abusu zantzuak dauden kasuak salbu. Kasu hauek Foru Aldundiaren Haurrentzako Zerbitzuak bideratu eta arreta ematen die.

Honi lotuta, arrisku ertaineko kasuen ebaluazioa egiteaz gain, bigarren mailakoak diren Ikerketa eta Ebaluazio prozesuetan Haurrentzako Zerbitzuarekin kolaboratzen dute, duten familiaren informazioa emanez, Haurrentzako Zerbitzuko teknikarien edota kasuarekin lotura duten beste profesional edo zerbitzuen harremana erraztuz. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek errealitatearen gainean duten ezagutza eta egindako balorazioak, askotan sei hilabete baino gehiagokoak, oso garrantzitsua da.

Bestalde, EISEren taldeko lana azpimarratzea, udalerri batzuk egiten duten haurren kalte psikikoa baloratzeko berdintasun zerbitzua eta zerbitzu psikosoziala. Udal Zerbitzu Psikosozialak familia osoa baloratzen duen familiekin egindako planifikazio eta esku hartze prozesuak existitzen dira. Era berean, haurrentzako batzordeak dituzten udalerriek egindako lana azpimarratu da. Horietan, EISEk, psikologia taldeak eta gizarte laneko taldeak parte hartzen dute. Batzorde horietan kasuak baloratzen dira, horien jarraipenak egiten dira eta esku hartzea bideratzen da. Baliabide guztiek batzordeen adostasuna dute eta esku hartzea hobetzeko modu bat da.

Haurrentzako II. Planetik sortutako beste arrakastetako bat babesgabetasun egoerak hautemateko sistema ezberdinekin sare lana sustatzea izan zen.

**Osakidetza**rekin koordinazioari dagokionez, diagnostikoan parte hartu zuten teknikariek uste dute orokorrean ospitaleetako larrialdi zerbitzuetan babesgabetasuna hautemateko sistema on bat existitzen dela, izan ere, Osakidetzak tratu txarrak hautemateko gida bat egin du. Honi lotuta, Osabide Global sartzeak, osasun karpeta eta historia medikua kudeatzeko sistema, osasun eta gizarte sektoreen arteko koordinazio mekanismo eta prozedurak ezartzeko aukera ematen du, pazientearen gizarte balorazioa sartu ahal dela, eta horrek babesgabetasun egoerak hautematea errazten du.

**Hezkuntza Sisteman** "*Berdinen arteko tratu txarren gida*" eta "*Eskola uztearen gida*" egitean eta sustatzean aurrerapenak eman dira, irakasleak babesgabetasun egoerak hautematean duten papera kontzienteago eginez.

**Fiskaltzak eta Talde psikosozial judizialak** duen paperari dagokionez, azpimarratu behar da talde psikosozial judizialaren bidez aurretik esku hartzerik egin ez den kasuak hautematen direla, ez Haurrentzako Zerbitzuak ezta OGZek ere. Funtsean, banaketa edota dibortzio kasuetan seme-alabak instrumentalizatzeko kasuak dira. Babesgabetasun egoeran dauden adingabe arau hausleen kasuak ere identifikatu dira.

### *V.2.1.5. Haurren, nerabeen eta euren senideen behar berrien erantzuna*

***Buru osasunaren arreta***

Gizarte baliabideen herritarrenganako hurbilpen handiena eta gizarte zerbitzuen erabileraren normalizazioak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman familia profil berriak sartu dituzte, normalean esku hartzen ez zirenak, buru osasun arazoak dituzten familiak bezala.

Haurrentzako Zerbitzutik, beharra hauteman dutenez, denbora daramate haur eta nerabeei zuzendutako programak garatzen, jarreraren larritasuna dela eta buru osasun arazo bat egon daitekeela pentsatzera daramatenak. Bideratuz[5] eta Osatuz[6] programak dira, Konpentsazio Hezkuntza Kontsortzioaren menpekoak, non Haurrentzako Zerbitzuak eta Adintxikinoak[7] parte hartzen duen, Osakidetzarekin batera egindako.

Baliabide zehatzak martxan jartzeaz gain, erabiltzaileen profil aldaketa honek esku hartzean egitura aldaketak halabeharrez sortzera derrigortzen du, denboretan, ikuspegietan, kasuak koordinatzeko taldearen rolan...

Diagnostikoan parte hartu duten zerbitzuak ematen dituzten erakundeetako profesionalek baieztatu dute egun erronka garrantzitsua dagoela buru osasun arazoak dituzten zerotik hiru urte bitarteko haurren arretan, esku hartze psikoterapeutiko motak lan mota eta denbora epealdi oso luzeak eskatzen dituelako. Honi lotuta, esku hartzea adierazpen eztanda aurretik egin beharko litzateke, arreta goiztiarra eta ikuskaritza prebentiboa indartuz.

---

[5] Bideratuz programa ikasleei zuzenduta dago. Horietan, jarrera eta arazoen larritasunak buru osasun arazo bat egon daitekeela pentsarazten du. DBH gizarte zailtasun bereziarekin edo ikastetxera egokitzeko zailtasun handiak dituzten ikasleentzat Eskolatze Osagarriko Programak garatzearen barruan proposatu da, buru osasun arazo batetik sortutako jarrera arazo larriak dituzten ikasleentzat hamar plaza zehatz erreserbatu dira.

[6] Osatuz Programa". Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzenduta dago, Bizkaiko Lurralde Historikoko zentro publiko edo pribatu hitzartuetan matrikula egina dutenak, gutxiago edo gehiago laguntza espezializatua behar dutenak euren egokitzapen pertsonala sustatzen duena egokitzapena lortzeko eta gizarte eta eskola mailako bazterketa egoera ekiditeko.

[7] Adintxikinoak Programa, arrisku egoera larrian edo babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen diagnostiko eta tratamendurako arreta psikiatrikoko eta psikologikoko programa.

***Bizkaiko Foru Aldundiak[8] babestutako adingabeen errealitateari egokitutako erantzunak eskaini adin nagusitasunera heltzen direnean.***

Aldundiak babestutako gazteek 18 urterekin amaitzen dute euren ibilbidea Haurrentzako Zerbitzuan, eta hemeretzi urte eta erdi izan arte luzatzeko aukera dago, eta momentu horretatik aurrera, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren Gizarteratze Zerbitzura bideratzen da kasua, Haurrentzako Zerbitzutik abiarazitako ibilbideei jarraipena ematera zuzendutako programak dituenak, hala nola: Mundutik mundura, bakarrik dauden gazte atzerritarrei zuzendutakoa eta Helduz Programa (autonomia pisuak, laguntza sozioedukatiboa,...). Azken urteetan dauden baliabideak zabaldu eta banatu dira, eta kolektiboaren egungo beharrei egokitutako pisuak sortu dira: intentsitate ertaineko pisuak, jatorrizko familiaren jarraipen programak...

Era berean, Emakumearen eta Familia Esku hartzearen Zerbitzuak Haurrentzako Zerbitzuan babes neurriak izan dituzten eta arazo pertsonal eta sozialak dituzten emakume gazteei zuzendutako Egoitza Harreraren programa zehatz bat du. Gainera, genero indarkeriaren biktimentzat eta euren seme-alabentzat espezializatutako programak existitzen dira, kalte psikikoak dituzten adingabeentzat oso lagungarriak direnak. Alderdi honetan, positiboki baloratu da adingabeekin esku hartzea egitea amari laguntza osoa ematearen testuingurua, "amarekikotasuna" indartuz.

Hala ere, gazteek laguntzarik gabe bizitzaren erronkei aurre egiteko autonomia eta heldutasun nahikoa ez duten kasuak daude, eta kasu horretan laguntza baliabideek gutxienez 21 urte bete arte egon beharko lirateke. Honi lotuta, baliabideak adingabeen tipologia ezberdinetara egokitzeko beharra hauteman da, behar duten ikuskaritza motaren arabera.

Bestalde, Haurrentzako Zerbitzuaren kasuak gainontzeko baliabide eta programetara lekualdatzeko koordinazio protokoloak hobetzeko garrantzia azpimarratu da, gazteek zerbitzu berrietara lotzeko arazoak ez egoteko.

***Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria***

Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria -adingabeek euren gurasoen edo paper hori betetzen duten pertsonen aurka egindakoa- beti egon izan den arazo bat izan arren, duela urte batzuk

[8] 2014an Emakumearen eta Familia Esku hartze Zerbitzuak eta Gizarteratzeko Zerbitzuak, Haurrentzako Zerbitzuarekin batera, Gizarteratzeko Zuzendaritza Orokorraren eta Gizarte Ekintza Sailaren parte ziren. 2015etik aurrera, bi zerbitzuak Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren parte izatera pasatzen dira.

garrantzi berezia hartzen ari den arazoa da, maiztasun eta intentsitatean hazi delako eta bizitza publikoaren larritasuna dela eta. Familiaren barruan ezkutatzen den arazoa da eta kasu larrienak bakarrik azaleratzen dira.

Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailetik familian ezarritako indarkeri harremanaren dinamika aldatzeari zuzendutako guraso eta seme-alaben arteko esku hartze programak sustatzeko beharra ikusi zen, erasotzailea den nerabe edo gaztearekin eta bere familiarekin lan eginez, kide ezberdinak analisi prozesuan konprometituz eta egokitzapenekoa eta erasorik gabeko harreman baterantz aldatzeko. Ildo honetan onartu zen maiatzaren 19ko 70/2015 Foru Dekretua. Horren bidez, Gizarte Ekintza Saileko Guraso eta Seme-alaben arteko Indarkerian Espezializatutako Familia Esku hartze Programa erregulatu zen, Emakume eta Familia Esku hartze Zerbitzuan sartuz (egun, adierazi den bezala, beste sail baten barruan dago). Hala ere, diagnostikoan parte hartu duten eremu judizialeko pertsonek kasu hauetan esku hartze goiztiarra gehiago indartzea azpimarratu da, hura judizializatzea ekiditeko. Bere ikuspegiaren arabera, agian sistema ezberdinen erantzun egokiarekin ekidin ahal ziren salaketak aurkitzen dituzte.

***Gurasoak banatu eta dibortziatzen direnean haurrak instrumentalizatzea***

Dibortzio edo banaketa gatazkatsuetan sartuta dauden gurasoen seme-alaba adingabeen kasua jorratzeak haur eta nerabeengan eragin oso garrantzitsua duten egoera mota hauetan ezartzen diren dinamikak sortzen dituzte. Egoera hauek eremu judizial eta psikosozialeko profesionalek "tratu txar psikologiko" bezala izendatzen dituzte, adingabeetan sortzen duten kalte emozional garrantzitsua dela eta.

Eremu judizialetik banaketa eta dibortzioetan adingabeen instrumentalizazio kasuen gorakada adierazi da. Sozialki oso ezkutatuta dagoen fenomenoa da, hala ere, adingabeengan sortutako kalte estrukturala garrantzitsua da, eta hori dela eta kasu mota hauetarako berariazko programa edo esku hartzea ezartzeko egokitasuna baloratzea beharrezkoa da. Ildo honetan, alor honetako espezializazio handiagoa faltan bota da, askotan jorratu beharreko arazoan egoki fokalizatu gabeko esku hartzeak egiten baitira.

### *V. 2.1.6. Haurrentzako Zerbitzuaren programa eta baliabideen balorazioa*

Haurrentzako Zerbitzuak eskainitako zerbitzu eta programei dagokienean, adierazi behar da aurreko planak horien garapen eta ezarpenean aurrerapen

handia izan direla. Momentu honetan oinarrizkoak diren gaien artean, hauek azpimarratu behar dira:

1) Bizkaiko Foru Aldundiak orokorrean eta Haurrentzako Zerbitzuak batez ere Haurrak babesteko sistemara bideratutako baliabide kopuruaren gaineko gogoeta egiteko beharra. Eskuragarri dauden baliabideak ez dira egungo eskaerara egokitzen, eta beraz, jarduera mekanismoak mugatuak dira. Horrek adingabeek kasu planak dauden baliabideetara egokitu behar izatea dakar. Era berean, erantzun egokia ezin denez eman, kronizitate arriskua gora doa.

2) Dagoeneko abiarazitako baliabideen espezializazio ibilbidean pausu irmoz aurrera egiten jarraitzeko eskaria. Pixkanaka zentroetan espezializatzen joan dira, baina aurrera egiten jarraitu beharra dago, batez ere jarrera arazoak dituzten nerabeei arreta ematen.

3) Baliabideak errealitate eta profil aldakorrei egokitzeko behar etengabea. Haurrentzako Zerbitzutik babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen beharren ezagutza zehatza badago ere, beti ez dago eskari berriei erantzuteko azkartasun nahikoa. Egun, kalte psikopatologiko oso adierazgarriak dituzten adin txikiko adingabeak ditugu, eta baliabide eta programak egokitu eta erantzun eraginkorragoa eman beharko lukete.

***Harrera, Balorazioa eta Orientazioa***

Harrera, Balorazio eta Orientazio Ataletik egiten den larrialdiko berehalako arretan azpimarratzea garrantzitsua da. Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko 26/2015 Legearekin bat, "*agintaritza eta zerbitzu publikoek beharrezkoa duen edozein adingaberi berehalako arreta ematera derrigortuta daude, berehalako arreta emateko betebeharra betez adingabearen aldi baterako zaintza bere gain hartu dezaketela*
*aldi berean egoerak ikertu eta benetako babesgabetasun egoera alderatu, hala badagokio".* Zentzu honetan, adierazi behar da balorazio prozesuak ondo dokumentatuta daudela, adingabearen errealitatean eta haren potentzialitateetan oinarritzen dira. Honi lotuta, paper garrantzitsua dute familiei laguntza ematean, dedikazio, argitasun eta sentsibilitatearekin, horien inguruan baliabide posible guztiak koordinatzen saiatuz.

***Familia harrera***

Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak zein adingabeak babesteari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeek jasotzen dute babes neurri bat adostekotan, familia harrera egoitza harreraren aurrean lehentasuna izan beharko lukeela, aldi berean hiru urte baino gutxiago dituzten adingabeetan familia harrera derrigortuz eta 6 urte baino gutxiago dituztenetan ahalik eta epe laburrenean. Eta ezinezkoa balitz, egoitza harrera ez litzateke hiru hilabete baino handiagoa izango. Horretarako, beharrezkoa da esfortzu tekniko posible guztiak eta beste familia batean harrera sustatzeko beharrezko baliabideak eskaintzen dituen apustu politiko argia egitea. Ildo honetan, larrialdiko harreraren azken urteetako sustapena eta garapena azpimarratu behar da, eta balorazio taldeak egindako lan teknikoa, bereziki egokitzapenen balorazioari eta familien arretari dagokionean. Era berean, arretaren jarraikortasuna ataletik hoberen gauzatutako beste elementuetako bat da, atal batetik besterako pausuak egoki egiten dira eta neurria behin betikoa denean arreta jarraitua da.

Hala ere, diagnostikoan parte hartu duten pertsona gehienak bat datoz esatean familia hartzaile kopurua handitu behar dela, egun familia harrera neurria behar duten baina familiarik ez dagoelako egin ezin den adingabeak baitaude. Honekin batera, familia harrera batean parte hartzerako momentuan baldintzatzen duten faktoreetan sakontzeko aukera eman da, eta gizarte sentsibilizazio eta hartze kanpainak egin.

Gainera, beste familia batean harrera programan parte hartu duten familiek kasuaren koordinazioaren laguntza gehiago eta harrera bat egiteko euren gaitasun ekonomikoari kalte egin ahal dion egoerak ekiditeko euskarri ekonomiko nahikoa eskatzen jarraitzen dute.

Bestalde, 26/2015 Legeak espezializatutako harrera honela definitzen du: "*beste familia batean garatzen dena, eta familia horretako kideren bat behar eta egoera bereziak dituzten adingabeekiko funtzio hau betetzeko kualifikazio, esperientzia eta formazio zehatzak dituen kide bat dago, eskuragarritasun osoz eta horretarako dagokion konpentsazio ekonomikoa jasoz, lan harreman bat suposatzen ez duela*". Era berean, adierazi du *lan harremana dagoenean profesionalizatu ahalko dela*". Dena den, esanahian sakondu beharko da, dituen inplikazioak, aurrera eramatea egokia den kasuak eta nola garatu daitekeen.

Erreferentzia berezia behar du **adopzioen** kasuan erantzuteko azkartasunak, zama emozional gogorra eta itxaronaldi luzeak dituzten gai bereziak direlako. Gainera, kasuaren ikuspegi globala bermatu da, esku hartze taldea prozesu osoan mantentzen delako, familien formaziotik hasita, adopzio aurreko prozesutik pasatuz jarraipen eta adopzio osteko laguntzara arte.

Era berean, beste puntu indartsu bat balorazioa kanpora ateratzea da, esku hartze egoki baterako oinarrizkoak ere diren beste lan batzuk egiteko denbora gehiago ematen duelako. Honi lotuta, Haurrentzako Zerbitzuaren eta

balorazioak egiten dituen erakundearen arteko konfiantza eta etengabeko hizketaldi harremana existitzen da, izan ere, normalean elkarrekin lan egiten dute, eta horrek irizpideen unitatea bermatzen du. Positiboki baloratu dira ere aholkularitza zerbitzua eta egin diren jatorrien bilaketa prozesuak. Honekin batera, prozesuen sistematizazioaren esfortzu garrantzitsua egin da ISO 9001 eta gai horren gaineko formazio ekintzak ezarriz.

Hautemandako behar berriei dagokienean, adierazi behar da azken urteetan euren seme-alaben adopzio prozesuaren hasieran buru osasun ona zuten arren haurrak nerabezarora heltzean kalte psikopatologikoak atera, familiaren buru osasuna ahuldu eta buru kaltea ematen den kasu kopuru garrantzitsua identifikatu dela. Horren ondorioz, adopzio familiarekin harremana duten zaintza edo babes neurriak dituzten babesgabetasun egoeran dauden eta baliabide bereziak behar dituzten nerabeen kasuak ditugu. Honi lotuta, haurraren eta adopzio familiaren arteko lotura hobetzen duten prebentzio programak aurrera eramatea beharrezkotzat jotzen da, hasieratik eta ez arazoa sortu denetik bakarrik. Beraz, beharrezkoa da egoera hauei erantzun egokia emateko nahikoa baliabide eskaintzea.

***Egoitza Harrera Baliabideak***

Haurrentzako Zerbitzuak egoitza harrera baliabideak uztailaren 8ko 131/2008 Dekretura egokitzeko esfortzu itzela egin da, gizarte babesgabetasun egoeran gauden haur eta nerabeentzako egoitza harrera baliabideak erregulatzen dituena. Dekretua indarrean sartu zenean modu ez formalean egiten zena formal bihurtu zuen, eta prozedura aldaketak sartzera eta ezarritako ratioetara egokitzeko langile gehiago sartzera derrigortu zuen, hori guztia egun banatutako baliabideak, existitzen diren kasuei arreta emateko plaza nahiko eta langileen egonkortasun handiko kalitatezko zentro sare bat izatea ekarri du. Honi lotuta, esku hartzeko irizpide komunak dituzten egoitza baliabide sare bat osatu da, alderatzen eta unitate ikuspegia ematen laguntzen duten topaketa foroak dituenak, eta koherentzia eta zentzua ematen duen harrera zerbitzua, zentro bakoitzean koordinazioaren erreferente den irudi bat ezarri delako, eta horrek kudeaketan homogeneotasuna bermatzen duelako.

Aipamen berezia behar dute bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektibora zuzendutako egoitza harrera baliabideetan egindako hobekuntzak. Horietan, azpiegiturak hobetzeaz gain, esku hartze ekipoak profesionalizatu dira eta gainontzeko Zentro eta Etxe Sareen antzekoak diren arreta ratioak lortu dira. Honekin batera, harrera eta gizarteratze ibilbidea eguneratu da eta harreran dauden adingabeen banakako eta pertsonalizatutako esku hartzea azpimarratu da.

Esku hartze prozesuei dagokienez, harrera eta agurra protokolo bat existitzen dela azpimarratu behar da, Dekretuan ezarri ez bada ere egoitza harrera baliabide guztietan adingabeen harrera prozesuaren egituratze orokor onaren oinarrizko arrazoietako bat izanik diseinatu da. Adingabea heldu aurretik etxearekin aurretiko harremana oso ondo antolatzen da. Baina lan prozesuetan ere protokoloa sartu behar da.

Era berean, tutoretza duen erreferentziazko irudiarekiko lotura prozesua asko zaintzen da, aurretik informazioa izaten dute eta adingabearen heltzea zorrozki prestatzen dute. Oso ondo zaintzen den beste momentu bat da zentrotik ateratzea, askotan hilabete asko lehenago egiten dela eta zaila den eta beldurra sortzen duen unea da, adingabeen hitzetan.

Honekin lotuta, adingabeek asko baloratzen duten alderdietako bat da hezkuntza taldearen profesionaltasuna eta inplikazioa. Zentzu guztietan ematen dieten laguntza oso garrantzitsua da eta erreferente bat dira. Bere aldetik, Egoitza Harrera Unitateko taldeak egoitza harrera zentroekin harreman oso estua du, euren errealitatea ezagutzen dute eta existitzen diren lan foro ezberdinetan parte hartzen dute.

***Espezializatutako Arreta Familia Topaketa Puntua***

Espezializatutako Arreta Familia Topaketa Puntua haur eta nerabeen eta euren guraso, senide edo gertukoen arteko bisiten garapenari zuzenduta dago, Bizkaiko Foru Aldundiak Haurrentzako Zerbitzuaren bidez babes funtzioa duenean, familia harremanak errazteari begira, jatorrizko familiarekin erabateko apurketa eman ez denean, adingabearen interesak eta ongizateak lehentasuna duela bisita egiterakoan.

Diagnostikoan parte hartu zuten profesionalek bisiten egokitasunaren eta maiztasunaren inguruko irizpideen gaineko gogoeta egiteko beharra adierazi dute, Espezializatutako Arreta Familia Topaketa Puntuaren egungo saturazioa ekiditeko.

Bestalde, Haurrentzako III. Planaren diagnostikoaren garapenean profesionalen taldeak familia topaketa puntuak baldintza egokiak betetzen ez zituela adierazi bazuen ere, adierazi behar da 2015etik Haurrentzako Zerbitzuak talde teknikoak adierazitako beharrei hobeto egokitzen zaizkion lokal berriak dituela.

## V.2.2. Haurrentzako Zerbitzuaren koordinazio eta barne antolaketa dinamiken ebaluazioa

Haurrentzako Zerbitzuaren atal ezberdinek egindako funtzioak hauek dira:

a) **Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala:** babesgabetasun arrisku larrian edo babesgabetasun egoeran dauden adingabeak baloratzeko funtzioak egiten ditu.

b) **Familia Harrera eta Adopzioak Atala:** babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako familien integrazioa lortzera bideratutako administrazio lanak egiten ditu, jatorrizko familian gizarteratzeari begirako lanari lehentasuna emanez, eta ezinezkoa bada, beste familia batean integratzera, bai harreraren bidez bai adopzioaren bidez.

c) **Egoitza harrera Unitatea:** babes neurri honetan adingabeentzako egoitza harrera zerbitzua emateko funtzioa du.

### V.2.2.1. Koordinazioa eta komunikazioa

Orokorrean, lan giro ona eta atal ezberdinen arteko lanen antolaketa egokia dago Haurrentzako Zerbitzuan. Profil osagarriak egoteak eta talde lanak esku hartzerako orduan kasuak alderatzeko aukera ematen du. Honekin lotuta, babes gaietan erabakiak Haur eta Nerabeentzako Batzordearen barruan elkarrekin hartzen dira, astero biltzen dena.

Era berean, atal bakoitzean astero edota hamabostero taldeko bilera formalen dinamikak sortzen dira, eta harreman ez formalak oso arinak dira. Horrekin batera, goiko agintarien eskuragarritasuna azpimarratu behar da. Profesionalek egindako diagnostikoan adierazitako beste indar puntu bat. Horretaz gain, administrazio taldeari informazioa emateko parte hartze espazioak handitu beharko lirateke, euren lana egoki egiteko.

Atalen arteko koordinazio dinamikei dagokienez, atal ezberdinetako teknikari guztien arteko ikuspegiak bateratzeko aukera ematen duen dinamika orokor bat faltan bota da. Atal ezberdinen arteko deribazio prozesuak berrikusteko beharra ere hauteman da, atal bakoitzak egindako funtzioen arteko arazoak eta mugak gehiago zehazteko.

Ondoren, atal bakoitzaren koordinazio eta komunikazio dinamika zehaztu da.

### a) Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala

Lana bost eremu geografikoetan antolatzeak lana egituratzen lagundu du, erreferentziazko pertsonak beti mantenduz. Gainera, bilerak egiten dira talde bakoitzarekin, ezaugarrien arabera kasua profil egokienera esleituz.

Era berean, "Balora" balorazio instrumentua talde teknikoak egindako lanean asko lagundu duen mugarria izan da, balorazio irizpideak estandarizatzen eta haurra edo nerabea helburuan zentratzen lagundu duelako.

Hala ere, ebaluazio eta ikerketaren zailtasunari esku hartzea dokumentatzeko beharrari lotzen zaio, espediente bat edozein momentutan judizializatu daitekeelako eta egindako esku hartze guztiaren frogak egon behar direlako. Hori, existitzen den kasu bolumenari gehituta, taldea gehiago zaindu eta indartzeko beharra argi uzten du.

### b) Familia Harrera eta Adopzioak Atala

Atal honi dagokionez, talde lanaren koordinazio eta funtzionamendu ona adierazi behar da, erabakiak hartzean etengabeko alderatzerako aukera ematen duena. Modu berean, figura profesional ezberdinen artean osagarritasun ona existitzen da.

Gainera, ***Familia Harrera Programaren*** sistematizazioan egindako aurrerapena azpimarratu behar da, izaera osoa du eta eragina duten alde guztiek parte hartzen dute, hezkuntza eta psikologia profila duten langileek parte hartzen dute eta ibilbideak familia bilatzetik harrera gauzatzeraino prozesu osoa barne hartzen du.

Profesionalek adierazitako zailtasunen artean prozesuen administrazio eta informazio zama altua azpimarratu behar da, kasu bolumen handia dela eta maneiatzeko zaila dena.

c) **Egoitza harrera Unitatea**

***Egoitza harrera baliabideen*** uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak marko erregulatzaile bat sortu zuen, egoitza baliabideen etengabeko egokitzapen esfortzua egin zelarik.

Era berean, egoitza eremuan sortutako foroak oso positiboki baloratu dira, profesionalen parte hartzerako aukera eman dutelako, eta horrek esku hartzerako orduan elkarrekiko irizpideak egotea baimendu du. Gainera, Egoitza Harrera Unitatearen kasuen koordinazio taldeak egun egoitza harrera baliabideetara hilero lekualdatzeak esku hartzean eta koordinazioan efektu oso positiboak ditu.

Bestalde, erakundeekin kanpo baliabideak kontratatzeko aukerak esku hartzean malgutasun handiagoa bermatzen du, baliabideak eskariaren eta ezaugarrien arabera zabaldu, murriztu edo aldatzeko aukera ematen duelako.

Hobetu beharreko alderdien artean adierazi behar da EHUri egitura handiagoa eman behar zaiola, kudeaketa lana errazten duten eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sartzeko aukera ematen duten bitarteko agintariak gehituz.

## V.2.2.2. Antolaketa egitura

### Ekipoen ezaugarri eta egiturak

Antolaketa egiturari dagokionez, Haurrentzako Zerbitzuarekiko Egoitza Harrera Unitatearen dependentzia funtzionala egonkortzean aurrerapen nabarmena eman da, eta atal ezberdinek egindako lana artikulatu da.

Hala ere, aurrerapen honetaz gain, rol profesionalen arteko tentsio batzuk adierazi dira, eta horri lan bolumena eta erritmo azkarra gehitu behar zaio, erabakiak hartzeko orduan gogoeta prozesuak errazten ez duena.

### Lanaren antolaketa

Orokorrean, atal bakoitzean bilera dinamikak existitzen dira. Hala ere, talde lan gehiago eta kasuen antolaketarako eta alderatze teknikorako bilerak

eskatzen jarraitzen dira. Lana eta arreta beste interferentziarik gabe txostenak idazteko une eta espazio zehatzak egoteko moduan antolatzea ere eskatzen da.

Administrazio prozedurei dagokienez, azken urteetan aurrerapen nabarmena eman da, eta egun, Haurrentzako III. Planarekin lotuta atal guztien artean partekatzeko egungo zaintzen kudeaketa sistema berrikusteko aukera planteatu da.

Honekin batera, ARDATZ aplikazioaren ezarpenak, egun egiten ari dena, espediente guztien kudeaketa eta prozedura batzuen izapidetzea erraztuko du, hala nola, berehalako arreta eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren zaintza, adopzio nazionalerako eta nazioartekorako eskaintzak, familia harrerak eta jatorrien bilaketa izapidetzea. Ildo honetan, lana antolatzeko garrantzitsua da espedienteak antolatzeko sistema hobetzen jarraitzea.

### V.2.2.3. Baliabideen kudeaketa

**Egitura eta espaziokoak**

***Egoitza harrera baliabideei*** dagokienean, baliabide ezberdinen kostuen homogeneotasuna eta egungo hitzarmenen berrikuspena beharrezkoa da.

Baita ere beharrezkoa da egungo instalazioen mantentze eta berritze plan bat ezartzea, mantentze lanak maiztasunez egiten badira ere egindako esku hartzeak antolatzen laguntzeko plan zehatz bat ezartzea interesgarria litzatekeelako.

***Haurrentzako Zerbitzuko langileen lan instalazioei*** dagokienean, Haurrentzako II. Planaren garapenean Lan Arriskuen protokoloaren ezarpenaren ondorioz Haurrentzako Zerbitzuko langileek arretara zuzendutako espazio fisikoa aldatu zen, existitzen diren segurtasun neurrien handitzea bereziki azpimarratuz. Horrek erabiltzaileen arreta espazioetan hobekuntza orokorra ekarri du.

Haurrentzako III. Planari begira lan espazioaren baldintzak hobetu beharko lirateke, lana burutzea errazteko, espazioa ez delako nahikoa batez ere bilera espazioei dagokienean.

**Giza Baliabideak**

Haurrentzako Zerbitzuko langileen mugikortasunarekin lotuta, profesionalek hauteman dute Harrera, Balorazio eta Orientazio atalean mugikortasun handia ematen dela, eta horrek profesionalen lan baldintzetan eragina duela.

**Hautapen prozesuei** dagokienez, Haurrentzako Zerbitzura heldu aurreko hautapen prozesu bat ezartzearen garrantzia adierazi da, hautagaiak modu egokiagoan aukeratzeko aukera ematen duena, lana burutzeari egokitutako gaitasun maila duten pertsonak sartzeko.

Langileen laguntza eta harrerarekin lotuta, Haurrentzako Zerbitzuan lan egiten duten profesionalentzat formazio zehatzak egiten ari dira, Presidentzia Sailak antolatzen dituen lanposturako formazio planen bidez (eta, hala badagokio, GUFEen formazio planen bidez). Formazio horiek teknikariek egindako proposamenetatik sortu dira. Honekin batera, foro eta jardunaldietan parte hartzea erraztu da eta haurrak babesteko foro zehatzak abiarazi dira (Topaketak, Kongresuak, Jardunaldiak,...).

Haurrentzako Zerbitzuko profesionalek identifikatutako hobekuntzen artean Haurrentzako Zerbitzuan sartzen diren pertsonen harrera protokoloa adierazi. Hobeto egituratuta egon eta hasiera bateko oinarrizko formazioa izan beharko lukeela planteatu da, lanpostuan sartu aurretik kokatzeko aukera izateko. Harrera protokoloa ezaugarri hauetako lanpostu batek dituen ardura eta erabakiak hartzeko mailarentzat nahikoa ez dela ematen du.

Segurtasunarekin lotuta gaiak nahiko hobetu dira Gizarte Ekintza Sailaren kanpo indarkeriaren aurkako babes sistema erregulatzen duen azaroaren 27ko 64103/2013 Foru Aginduaren ondorioz. Horretaz gain, lana egiterako orduan profesionalek uste dute euren osotasun fisiko eta emozionala egoera batzuen ondorioz batzuetan konprometitu izan dela. Honekin batera, administrazio eta lege ondorioekin lotutako formazio gehiago eskatu da.

Rol, lan eta funtzioekin lotuta, Esku-hartzeko Gidaliburuan profil profesional ezberdinen funtzioak zehazten badira ere, rol eta lanpostuei lotutako funtzio eta lanak argitzea beharrezkoa izaten jarraitzen du. Rolak ez zehazteko honek zalantza sortzen du batez ere Ataleko Buru eta Eremuko Ardura lanpostuetan. Baita ere zalantza sortu da teknikarien eta administratiboen funtzio eta lan batzuekin.

Lidergotasun eta ardurari dagokionez, orokorrean, uste da lidergotasun eta ardura hobetu bada ere, eremu honetan aurrera egiteko beharra dago oraindik. Izan ere, teknikariek zein administrariek uste dute dagokiena baino ardura handiagoa hartzen dutela batzuetan.

Egoitza Harrera Unitatearen (EHU) kasuan, ez dago lanaren egituraketa errazten duen Eremuko Arduradunik. Gauza bera gertatzen da Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFE) zuzenean kudeatutako egoitza harrera baliabideekin. Bertan, Etxeko Arduradunaren irudiak barne mailako (egoitza harrera baliabidearen barruan eta Haurrentzako Zerbitzuarekin) eta kanpo mailako koordinazioa indartuko luke, sistemako gainontzeko eragileekin harremana izanez.

Lan zamei dagokienez, Haurrentzako Zerbitzuko langileentzako ordezkapenetarako Ekintza Protokoloaren mantentzea azpimarratu behar da, Harrera, Balorazio eta orientazio Ataleko teknikarien baja eta ordezkapen egoeretan ezartzen joan dena. Era berean, Haurrentzako Zerbitzura heltzen joan diren espediente kopuruak gora egin duenez, kasuak koordinatzeko plaza berriak sortu dira, Ataleko ekipoak berregituratuz. Egun, Psikologian lizentziatutako pertsona batek eta Gizarte Lanean diplomatutako bi pertsonek osatzen dute.

Dena den, Haurrentzako Zerbitzuko atal guztien lan zamak berrikusteko beharra hauteman da, profesional bakoitzari esleitutako gehiegizko kasu bolumena agerian uzten baitu, eta horrek lan giroan eta beste zerbitzu edota sailetara lekualdatzean eragina izan dezake. Beraz, profesional bakoitzarengatik ezarritako kasu ratioak errespetatu behar dira, esku hartzean eragina duelako, kasu askotan administrazio alderdiak eta larriak estaliz, baina ezarritako kasu plana osorik betetzeko ezintasunez. Honekin lotuta, bajak edo eszededentziak ez estaltzean eragin handia du lana egitean.

## V.2.3. Haurrentzako Zerbitzuaren kanpo koordinazio dinamiken ebaluazioa

### V.2.3.1. BFAko beste sailekin koordinazioa

Haurrentzako Zerbitzuarekiko koordinazio nagusiak hauekin ematen dira:

- Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila, zehazki Gizarteratzeko Zuzendaritza Orokorraren menpeko Gizarteratzeko Zerbitzuarekin eta Emakume eta Familia Bitartekaritza Zerbitzuarekin.
- Dependentzia Baloratzeko eta Orientazio Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu Juridikoak

Adierazi den bezala, egun bi zerbitzuak Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailarenak izatera pasa dira, eta horrek ez du biekin dagoen koordinazio eraginkor eta ohikoan eraginik izan, Haurren kolektiboak, adin nagusitasuna lortzean, Emakume eta Gizarte Esku hartze Zerbitzuko eta Gizarteratzeko Zerbitzuko baliabideetara pasatzen delako gehienetan.

**Emakume eta Gizarte Esku hartze Zerbitzuarekiko** koordinazioari dagokionean, bi zerbitzuek kasuak jorratzerako orduan duten irizpide eta ikuspegi ezberdintasunez gain, kolaborazioa oso estua da. Izan ere, babes sisteman arreta jaso duten gazteek bizitza heldura pasatzeko elkarrekiko laguntza programa eta baliabideak garatu eta sustatu dira.

**Gizarteratzeko Zerbitzuarekiko** koordinazioarekin lotuta, existitzen den kolaborazio ona aipatu behar da. Izan ere, Haurrentzako II. Plana bitartean Gizarteratzeko Zerbitzuak emantzipaziorako egoitza programak eta gizarteratzean laguntzeko programak abiarazi zituen. Dena den, Haurrentzako Zerbitzuak tutelatutako gazteak Gizarteratzeko Zerbitzuaren programetan sartzea zailtzen duten baldintza eta irizpideak adierazi dituzte. Ildo honetan, programak eta baliabideak eskuratzeko irizpideak berrikustea beharrezkoa dela ematen du, Haurrentzako Zerbitzuak bideratutako gazteen beharretara egokitzeko.

Esku hartze zuzenari dagokionez, adingabeak EHUko egoitza harrera baliabideetatik Gizarteratzeko Zerbitzuaren menpeko baliabideetara pasatzea lantzen jarraitu behar da, adingabeak baliabide berrira lotu eta egokitzeko eta lotura arazoak murrizteko.

**Dependentzia Baloratzeko eta Orientazio Atalaren** koordinazioari dagokionez, Sail berean egoteak harremana errazten du baina kasuen deribazioaren azkartasuna eta bi aldeek emandako informazioaren arintasuna hobetu beharra dago.

Azkenik, **Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu juridikoekiko** koordinazioari dagokionez adierazi behar da egun Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales -en Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko abokatu talde bat existitzen dela, haurrentzako Zerbitzuko kasuen defentsa esleituta dutenak. Horrek, gaian espezializatzeko beharra dakar. Era berean, Haurrentzako Zerbitzua barruan dagoen prozedura judizial bat dagoen kasuetan koordinazio eta aholkularitza ona existitzen da. Diagnostikoan parte hartu duten pertsonek hobetu behar direla adierazitako

alderdien artean, Zerbitzu Juridikoekin batera egindako lana azkartzeko beharra azpimarratu behar da.

### V.2.3.2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa (OGB)

OGZekiko harremana BALORA instrumentua egin ondoren indartu zen, sortutako ezagutza, truke eta lan teknikoaren espazioaren ondorioz. OGZetaik lurralde arteko izaera duten mota honetako espazioak mantentzea garrantzitsua dela uste da, maila ezberdinak parte hartzen dutena. Ildo honetan, sistemaren maila ezberdinen arteko profesionalen arteko topaketa gehiago sustatu beharko lirateke, neurri handiago batean esku hartze irizpideak banatzeko, lehen edo bigarren mailakoa den argi ez dagoen kasuetan egoerak murrizteko asmoz.

Era berean, lehen eta bigarren mailako koordinazio protokoloa, garatutako lanaren ondorioz sortu zena, bien arteko kooperazioan hobekuntza garrantzitsua ekarri du. Honekin lotuta, OGZen eta Haurrentzako Zerbitzuko Taldeen arteko ohiko koordinazio dinamikak ezarri da, kasu zehatzetan elkarrekiko esku hartze estrategiak aurkeztu, aztertu, bideratu eta ezartzeko asmoz. Dena den, bi mailen arteko kolaborazio dinamikak indartu beharko lirateke, esku hartze fase guztietan, kasuaren balorazioaren hasieratik, Esku hartze Planaren garapena bitartean eta kasua itxi edota bideratzeko unean.

### V.2.3.3. Zerbitzua ematen duten erakundeekiko koordinazioa

Orokorrean, Haurrentzako Zerbitzuko programak kudeatzen dituzten gizarte erakunde gehienek baliabide ezberdinetako profesionalek egiten duten lanaren hurbiltasuna eta aitortza sentitzen dute. Era berean, Haurrentzako Zerbitzuko langileek laguntza teknikoko lan garrantzitsua egiten dutela uste dute. Honekin batera, esku hartzearen sistematizazioan eta inplikatutako alde guztien arteko koordinazioa hobetzean egindako esfortzuaren aurrerapen nabarmena adierazi da.

Hobetu beharreko alderdi bezala, zerbitzua ematen duten erakundeek Haurrentzako Zerbitzuak emandako informazioan eta familiarekiko lotura, kalte emozionala...bezalako alderdien balorazioan zehaztasun handiagoa proposatu dute, adingabearen eta bere familia testuinguruaren errealitatea garatu beharreko esku hartzeari gehiago egokitzen lagunduko lukeelako.

### V.2.3.4. Beste sistemekin koordinazioa

Administrazio Publiko ezberdinen arteko koordinazioak, bakoitzak izaera juridiko eta jarduera eremu zehatza duela, ez du egindako ekintzetan independentzia osoa egon behar izatea ekartzen. Izan ere, Haurrentzako II. Planean beste sistemekin jarduerak koordinatzea hobetzea ezarri zen helburu gisa, pixkanaka lortzen ari dena, bakoitzaren berezitasunak direla eta zaila den lana baita.

**Osakidetza**rekin aurrerapen nabarmenak eman dira buru osasun kasuen balorazioan, bere garaian gatazkatsua izan zen gaietako bat. Eta BALORA instrumentua ere partekatu da, osasun eremuari egokituz. Honekin batera, ospitaleekin koordinazio ekintzak egin dira. Hala ere, Osakidetzarekiko harremanak azken urteetan garapen positiboa izan duen arren, esku hartze eremuaren definizioa eta kolaborazioa handitu beharra dago, egun espazio soziosanitarioan zati sozialak sanitarioak baino pisu handiagoa izaten jarraitzen duelako.

Kolaborazioan garatutako programei dagokienez, Adin Txikikoak programa azpimarratu behar da (aurretik aipatu duguna). Dena den, egun programa hori gainezka dago. Psikiatria zerbitzuetatik programa berritzearen eta hala badagokio, handitzearen aldekoak dira.

Bestalde, profesionalek haurra edo nerabea psikiatria Unitatean ingresatua egon ondoren zentrora baldintza ez oso egokietan heldu den egoerak hauteman dituzte.

Era berean, esku hartzearen arrakasta bermeak hobetzeko hauteman eta esku hartze goiztiarraren garrantzia azpimarratu da. Ildo honetan, esku hartzean bitarteko espazio eta zerbitzuak izateak lagunduko luke. Beste espazio batzuetan ospitale eta eguneko zentroen bidez instituzionalizatzeko bitarteko graduak dauden bezala, anbulatorio eta ospitalearen arretaren arteko buru osasun arretarako bitarteko espazio bat izatea garrantzitsua litzateke.

Edozelan ere, Haurrentzako Zerbitzuko zein egoitza harrera baliabideetako profesionalek adierazi duten bezala, oraindik oso argi ez dauden partekatutako esku hartze espazioak daude, EAEn espazio soziosanitarioaren garapen urria eta gizarte eremuak sanitarioaren aurrean oraindik duen gehiegizko protagonismoa dela eta.

Haurren babesarekin lotutako eremu guztietako profesionalak arduratzen dituen beste gai bat ohiko egoitzaren aldaketetatik sortutako esku hartzea hautemateko eta jarraitzeko arazoak dira.

Hezkuntza sistemaren eta Haurrentzako Zerbitzuaren artean kolaborazio egonkorra existitzen da Hezkuntza Konpentsatorioko Kontsortzioan, Bizkaiko Lurralde Historikoan Hezkuntza Konpentsatorioko Plana garatzea eta zailtasunak dituzten haur eta gazteak gizarteratzea helburu duena. Zehazki, Haurrentzako Zerbitzuak %50ean finantzatutako programa ezberdinak garatu dira, horien artean San Mames-Boluetaren eskolatze programa osagarria, eskolara egokitzeko arazo larriak edo gizarte arazo berezia duten 14 eta 16 urte arteko ikasleen hezkuntza beharrei erantzuna ematea helburu duena, eta lehen aipatutako Bideratuz eta Osatuz.

Era berean, Haurrentzako Zerbitzuak "Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa: Bizkaiko Lurralde Historikoan eskolara ez joatea ezabatzea" programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Batzorde hori inplikatutako erakunde bakoitzeko bi ordezkariz osatuta dago. Hiru hilabetean behin behintzat elkartzen da eta urteko txosten bat egiten du, beste alderdi batzuen artean Bizkaiko Lurralde Historikoko tasaren garapena eta ez joate eta eskola uzte indizea jasotzen duena, haur hezkuntza etapan eskolatzea errazteko martxan jarritako ekintzak eta hobetzeko proposamenak. Ildo honetan, hezkuntza langileak eta haurren babesgabetasunean adituak diren pertsonek adierazi dute hezkuntza sistemak jarrera arazoak dituzten nerabeen eskolara ez joate tasa altuari erantzun bat eman beharko liokeela, hezkuntza sistema orokorrean sartzen ez diren adingabeentzako ibilbide alternatiboak eskaintzen dituzten programak emanez.

Hala ere, lorpenez gain, bi aldeek diote koordinazioa neurri handiago batean sistematizatu beharko litzatekeela eta lan teknikoko elkarrekiko espazio bat izan, Haurrentzako Zerbitzuko lana partekatu eta hedatzeko eta tresna eta programa erabilgarriak elkarrekin sortzeko aukera ematen duena. Modu berean, Berritzeguneen koordinazioa hobetu beharko litzateke, Haurrentzako Zerbitzuaren zaintzapeko haur eta gazteen ezaugarriak neurri handiago batean ezagutzeko aukera emango lukeelako.

Azkenik, azpimarratu den beste alderdi bat egoitza harrera baliabideetan dauden adingabeen matrikulazioa azkartzeko beharra da, eta hezkuntza zentroek babesgabetasun egoeran dauden haurren gaineko eta BFA bermatzaile gisa duen paperaren gaineko ezagutza eta formazio handiagoa izatea lortzea. Honekin lotuta, kasuaren koordinatzailearekin harremana indartu beharko litzateke.

**Sistema judizialak** gizarte eremua ulertzeko zailtasuna du, baina hori ez da adingabeen Fiskaltzarekiko koordinazioa egituratzeko oztopo izan, eta egun arina da eta bi aldeek zerbitzuen ezagutza altua dute. Bi sistemen Zerbitzu Buruzagitzen artean aldizkako bilerak egiten dira, babesgabetasun egoeran dauden adingabeen gaineko gaietarako. Ildo honetan, positiboa da elkarrekin

lan egiten jarraitzea eta OGZak sartzea irizpideak partekatzeko eta egindako lana hobetzeko.

Bestalde, Fiskaltzak bideratutako kasuak iragazteko sistema hobetu behar da, kasu askotan ez direlako babesgabetasun espedienteak eta hala ere, Harrera, Balorazio eta Orientazio Atalak kasuaren balorazioa egiteko esfortzu handia egiten du, are gehiago adingabeen kasuen judizializazioa handitzen ari denean.

Honekin lotuta, bi sistemen denbora eta urgentziak oso ezberdinak dira. Haurrentzako Zerbitzutik guraso-ahala azkentzeko kasuak azkarragoak izatea baloratu da, genero indarkeria kasuekin bezala, sistema judizialaren prozedurak zabalak direlako eta askotan babesgabetasun egoeran dauden adingabeen kasuek behar duten urgentzia ez dutelako.

Segurtasun indarrekin koordinazioa (Ertzaintza, atzerritarren polizia, etab.) bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin egindako lanari lotutako bilera eta espazioen bidez mantendu da.

Ertzaintzari dagokionez, positiboki baloratu da Gizarte Ekintza Sailera agente bat bidali izana, foru gizarte zerbitzuak burutzean eman daitezkeen kanpo indarkeri egoerak ekiditeko, azaroaren 27ko 64103/2013 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat.
Horren bidez, Gizarte Ekintza Sailean kanpo indarkeriaren aurkako babes sistema erregulatu zen. Irudi hori Indarkeria Zero Taldean ere sartu da, administrazio Publiko Sailaren lan Arriskuen Atalarekin koordinazioaren markoan.

Aldi berean, babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen kasuetan esku hartzen duten ekintzetan kolaboratzeko modua zehazten den prozedurak ezartzen ari dira, ENCYTen egiten diren laguntzak bezala. Ildo honetan, alde guztien esku hartzean honek bete beharreko papera gehiago zehazteko beharra adierazi da.

# VI. KAPITULUA

# ESKU
# HARTZEKO
# B
# ALORE
# ET A
# PRINTZIPIOAK

Babesgabetasun egoeran dauden Haur eta Nerabeentzako III. Plana haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren barruan sartzen da. Bertan, "*adingabeak bere interesak lehentasuna izateko duen eskubidea garatu eta indartzen da. Kontzeptu hau eduki hirukoitz batetik definitzen da. Alde batetik, eskubide sustantiboa da, hau da, adingabeak bere interesak ebaluatuak izateko eskubidea du, eta beste interes batzuk egotekotan, konponbide bat bilatzean haztatuak izan direla. Bestalde, interpretazio izaera duen printzipio orokorra da. Beraz, adingabearen interesak hoberen erantzuten duen interpretazioaren alde egin behar da. Eta gainera prozedura arau bat da*".

Beste printzipio hau ere du kontuan: "*adinagatik, ezgaitasunagatik edo edozein egoeragatik bazterketa jasan gabe edozein administrazio, epai edo bitartekaritza prozeduran entzuna izateko oinarrizko eskubidea, adingabea kaltetua denean eta bere inguru pertsonalean, familiarrean edo sozialean eragina duen erabaki batera daramana*".

Era berean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoan eta uztailaren 28ko 26/2015 Legean esku hartzea gidatzeko ezarritako printzipio eta baloreetan oinarritzen da, hauexek jasotzen dira: "*adingabeekin lotutako botere publikoen jarduna gidatzen duten printzipioak*"

- ☐ *Adingabearen interes gorena gailentzea.*
- ☐ *Jatorrizko familia mantentzea, bere interesaren aurkakoa ez bada behintzat. Kasu horretan, familia babes neurri egonkorrak hartuko direla bermatuko da, familia harrerari lehentasuna emanez erakundeen harreraren aurrean.*
- ☐ *Familia eta gizarte integrazioa.*
- ☐ *Bere garapen pertsonala kaltetu dezaketen egoeren prebentzioa eta horiek azkar hautematea.*
- ☐ *Babesgabetasun egoeren aurrean herritarrak sentsibilizatzea.*
- ☐ *Hartzen diren neurri guztien hezkuntza izaera.*
- ☐ *Parte hartzea, boluntariotza eta gizarte elkartasuna sustatu.*
- ☐ *Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa babes jardueran.*
- ☐ *Indarkeria mota ororen aurkako babesa.*
- ☐ *Aukera berdintasuna eta bazterketa eza edozein egoeratan.*
- ☐ *Nortasuna modu askean garatzea sexu orientazio eta nortasunaren arabera.*
- ☐ *Aniztasun etniko eta kulturala errespetatu eta baloratzea".*

Planak ere aintzat hartzen du "*botere publikoek haur eta nerabeen aurkako edozein indarkeri motaren gaineko sentsibilizazio, prebentzio, hautemate, jakinarazpen, asistentzia eta babesera bideratutako ekintzak garatuko dituzte, administrazio, entitate kolaboratzaile eta eskumena duten zerbitzuen -publikoak zein pribatuak- arteko koordinazioa eta kolaborazioa bermatzen duten prozeduren bidez, jarduera oso bat bermatzeko*".

Era berean, **diziplina anitzeko, sektore anitzeko eta sare lanaren** beharra aipatu da. Zerbitzu komunitarioa, Oinarrizko Zerbitzuak eta Haurren Babesean Espezializatutakoak Babes Sistema bakarra osatzen duten parte bezala ulertu behar dira, haur eta nerabeen eskubide eta babesa zaintzea bermatzea helburu dutenak. Zerbitzu hauek ezin dute bakoitzak bere aldetik babesa behar duten haur edo nerabeen beharrak estali. Zerbitzu

eta sistema guzti hauen jarduera integratu eta koordinatuaren bidez bakarrik lortuko da.

Honekin lotuta, Haurrak Babesteko Zerbitzuen esku hartzea azalpen eta esku hartze eredu ezberdinak barne hartzen dituen **marko teoriko batean oinarritu behar da**, haurren babesgabetasun egoerak eta egoera hauen biktima izan diren haur edo nerabeak dauden familien ebaluazioan eta esku hartzean. Eredu eta teoria hauen artean hauek daude:

- Atxikimenduaren teoria.
- Haur edo nerabearen beharren teoria.
- Eredu ekologiko-sistemikoa.
- “Empowerment” ereduak (lehiakortasuna sustatu).
- Babes faktoreak sustatzeko ereduak.

Era berean, Haurrak Babesteko Sistemak arreta eman behar dien **haur edo nerabeen eta familien beharrei erantzuteko beharrezko baliabideak izan behar ditu.** Ezarritako ekintza eta baliabideak malguak, anitzak eta nahikoak izan behar dira, kasu bakoitzaren behar bereziei egokitu ahal izateko.

Gainera, denboran zehar babestutako haur edo nerabeen eta euren senideen egoera eta beharrak aldatzen doazela aintzat hartu behar da. Haur edo nerabe baten eta familia baten bizitzaren momentu zehatz batean egokiak izan daitezkeen neurri eta baliabideak beste une batean izan ez daitezke, eta horrek esan nahi du ezarritako baliabideen egokitzapenaren etengabeko ebaluazioa eta kasuaren beharren arabera aldatzeko nahikoa malgutasuna egon behar dela.

Gidaliburuak eta aurrerako araudi markoak adierazitako beste gaietako bat **haur edo nerabea familia inguru egonkor eta seguru batean integratzea da, ahal izatekotan jatorrizkoan, Haurren Babesaren helburu bezala. Familia eta lotura afektiboen garrantzia.**

Haur edo nerabe gehienentzat, familia batean oinarrizko beharrak estalita izateko inguru egokia berea da, ahal izatekotan. Izan ere, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak jatorrizko familiaren printzipioa lehenesten du, adieraziz "*Erakunde publikoak banakako arreta plana egin beharko du, non familia berrintegratzeko programa barne hartuko den, posible denean*". Horregatik, Haurrak Babesteko Zerbitzuen lehenengo eta lehentasunezko helburua gurasoak guraso rolean gaitu edota osatzea izango da, euren seme-alabei zaintza egokia eman eta familia batasuna gorde ahal izateko. Haurra edo nerabea bere jatorrizko familiatik aldendu behar denean, haurrentzako Babes Zerbitzuek familia berriz bateratzen saiatu behar dira.

Era berean, legearen arabera "*familia harreraren lehentasuna aurreikustea egoitza harreraren aurrean. Helburu hau guztietan komuna bada, sei urte baino gutxiago dituztenean, eta are gehiago hiru urte baino gutxiago dituztenean, egokitasuna ezinbesteko beharra da".* Honi lotuta, familia harrerara bideratutako kasuetan lehenik eta behin familia handiko harreraren aukera baloratu beharko da. Aukera hau

haurraren interes eta beharrei erantzuten badie, beste familia batean harrera hartzearen aurrean lehentasuna izango du. Familia berriz bateratzea ezinezkoa denean edo haur edo nerabearentzat egokia ez dela egiaztatzen denean, harentzat familia inguru alternatibo eta egonkorra bilatu beharko da adopzio edo etengabeko harreraren bidez.

Haurra edo nerabea familia inguruan modu egonkorrean integratzea lortu ezin denean (adib., adin arrazoiak, jarrera arazo zehatzak), Haurrentzako Zerbitzuen jarduna guraso funtzioak estaltzea, adin nagusitasuna lortzean helduen munduan sartzeko prestatzea (emantzipaziorako prestatu) izan beharko da, eta hori posible ez balitz ezintasun larri eta ezgaitasunekoak daudelako, espezializatutako inguru edo zentro batean integratzea bilatzea izango da.  22 bis artikuluan jasotako betebeharra da "*Administrazioak tutelatu ohiak diren gazteak bizitza independenterako prestatzeko betebeharra, gizartean eragin handia duen gaia, eta Erakunde Publikoek eta gizarte ekintzako Hirugarren Sektorekoen praktika onekoak Espainian*".

familiara itzultzea aurreikusten den edo ez alde batera utzita, haur edo nerabeak jatorrizko familiarekin loturak ezarri dituenean, lotura horiek mantendu behar dira, interes eta ongizatearen onerako badira. Haurrak Babesteko Zerbitzuen esku hartzeak lotura horiek mantentzearen eta babestearen arteko oreka lortu behar du.

Lotura afektiboak haur edo nerabearen eta bere gurasoen eta beste senide helduen artean ezarritakoez gain anai-arrebekin dituztenak ere dira. Horregatik, kontraesankorra denean izan ezik, orokorrean banaketa kasuetan anai-arrebak elkarrekin egotea edo ahalik eta harreman gehien izatea lehenetsiko da.

Erabakiak hartzeko irizpideekin lotuta, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak adierazten duen bezala, "*adingabearen interes gorenaren aldeko neurri oro prozesuaren bermeak errespetatzen hartu beharko da, eta bereziki:*

*a) Adingabeak informatua eta entzuna izateko eta indarrean dagoen araudiaren arabera, prozesuan parte hartzeko duen eskubidea.*
*b) Prozesuan kualifikatutako profesionalak edo adituak parte hartzea.*

*c) Adingabearen gurasoak, tutoreak edo lege ordezkariak edo bere defendatzaile judizialak parte hartzea horiekin gatazka edo desadostasuna egotekotan, eta Ministerio Fiskala bere interesak defendatzeko prozesuan.*

*d) Arrazoipenean erabilitako irizpideak, irizpideak euren artean haztatzerako orduan ezarritako elementuak eta oraingo eta etorkizuneko beste interesekin, eta errespetatutako prozesu bermeak.*

*e) Adingabearen interes gorena lehentasunezko bezala aintzat hartu ez duen erabakia berrikusteko aukera ematen duten baliabideak egotea, edo adingabearen garapen bera edo erabaki hori oinarritu zuten egoeretan aldaketa garrantzitsuak egotekotan hura berrikustea beharrezko egiten dutenak".*

Zentzu honetan, adingabeekin eta bere familiarekin jarraitu beharreko esku hartzearen gaineko edozein erabaki bere egoeraren banakakoa, osoa eta eguneratua den ebaluazioan oinarritu beharko da. Era berean, Haurrak Babesteko Zerbitzuan erabakiak hartzea taldean egin beharko dira, ez dira profesional bakar baten esku egongo. Horretarako, taldean lan egiteaz gain, profesionalek espezializatutako formazioa izan behar dute. Erabaki horiek aldizka berrikusi beharko dira. 26/2015 Legeak hauxe adierazten du: "*Erakunde Publikoek, epe zehatzetan, hartutako babes neurriak berrikusi beharko dituzte. Modu honetan, haur edo nerabe bakoitzaren jarraipen pertsonala eta babes neurriaren berrikuspena egitera derrigortzen da*".

Azkenik, **emaitzen ebaluazioaren eta zerbitzuen kalitatea hobetzearen etengabeko bilaketa adierazten du**, esku hartze gidaliburuan jasotzen zen alderdia. Haurrak Babesteko Zerbitzuetako arduradun eta profesionalek euren zerbitzu eta jardueren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea bilatu beharko dute. Horretarako, informazioa jasotzeko sistema fidagarriak beharko dituzte, euren jardunak monitorizatzeko, lortutako emaitzak ebaluatzeko eta gero eta eraginkorragoak diren baliabideak, prozedurak eta tresnak bilatu eta garatzen laguntzen dieten datuak izateko.

# VII. KAPITULUA

## HAURRENTZAKO III. PLANAREN HELBURU ETA EKINTZAK

## 1. HELBURUA: esku hartzeko irizpide komunak berrikusi kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatuz

*1.1. Adingabearen interesean zentratutako esku hartze eredua sustatu, non zuzenean erabakiak hartzean parte hartzen duen eta arretaren jarraikortasuna bermatzen duen.*

*1.2. Prebentzio lan ikuspegia indartu, familietan eta adingabeetan zentratutako esku hartzeak eginez, babesgabetasun egoerak arintzeko.*

*1.3. Ebaluazioa esku hartzearen kalitatearen hobekuntza jarraitutako elementu klabe bezala barne hartu.*

## 2. HELBURUA: Programa eta baliabideen espezializazioan aurrera egin, behar berriei erantzunez

*2.1. Programa eta baliabideen espezializazioan aurrera egiten jarraitu, hautemandako behar berrietan eragin berezia duten haurrei zuzendutako baliabideak handituz.*

## 3. HELBURUA: Familia harrera lehentasunezko babes neurri bezala izatearen aldeko apustua egiten jarraitu, hedapen ekintzak, existitzen diren laguntza baliabideak indartuz eta harrera prozesuak hobetuz

*3.1. Eragin sozial handia lortu urtean zehar jarraikortasuna duten informazio eta sentsibilizazio ekintzak eginez, familia hartzaileek egiten duten gizarte papera balorean jartzen dutenak eta beste familia batean familia hartzaile kopuru nahikoa dagoela bermatzen dutenak.*

*3.2. Harrera prozesuak hobetu eta familia hartzaileenganako laguntzak handitu eta zatitu.*

*3.3. Espezializatutako harrera sustatu.*

*3.4. Familia handiko harrera modalitatea lagundu.*

## 4. HELBURUA: Adopzio prozesuetan arrisku egoerak murriztu, prebentzioan lan eginez eta prozesuaren jarraipen, laguntza eta etengabeko ebaluazioa eginez

*4.1. Arrisku egoerak aurreikusi, familia hartzaileen eta adopzioan emandako adingabeen arreta prozesuak hobetuz.*

*4.2. Adopzio prozesuetan orientazio , aholkularitza eta laguntza egokia bermatzen duten baliabideak izan, prebentzioaren ikuspegitik.*

*4.3. Adopzio irekia garatu.*

## 5. HELBURUA: Egoitza harrera baliabideen kalitatea eta funtzionamendu egokia bermatzen duten neurriak ezartzen jarraitu, erabiltzaileen profil berriei erantzunez.

*5.1. Errekeritutako eta nahi den kalitatea izateko baliabide eta koordinazio prozesu egokiak bermatuz esku hartzea hobetu.*

*5.2. Egoitza harrera eremuko giza baliabideak indartu*

*5.3. Errealitate berriei erantzuten dieten espezializatutako egoitza harrera baliabideak martxan jarri.*

**6. HELBURUA: Haurrentzako Zerbitzua Ekintza Sozialeko Departamentuko beste Zerbitzuekin, BFAko beste Sailekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeekin koordinazioa sustatu.**

6.1. Ekintza Sozialeko Saila eta BFAko beste Sailekin elkarlana indartu

6.2 Oinarrizko Zerbitzu Sozialekin elkarlana sendotu

6.3. Zerbitzua ematen duten erakundeekiko koordinazioa hobetu

**7. HELBURUA: Haurrentzako Zerbitzuak beste sistema batzuekin duen koordinazioa handitzea eta esku hartzeko fase eta prozesu ezberdinetan inplikazioa sustatu, baliabideak eraginkorki aprobetxatuz.**

7.1 Adin txikikoak eta bere familiei erantzun orokorrak eskaintzeko Osakidetzarekin koordinazio hobetu, kasuen jarraipen egokia bermatuz.

7.2. Babesgabetasun egoeretan eragile esku-hartzaile eta adin txikikoen errealitatearen ezagutzagatik hezkuntza sistemarekin koordinazioa handitu

*7.3. Adingabeen Fiskaltzarekin harremana indartu.*

7.4 Ertzaintzarekin koordinazioa hobetu

7.5 Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila eta gainontzeko Lurralde Historikoetako Haurrentzako Zerbitzuekin koordinazioa

**8.HELBURUA: Haurrentzako Zerbitzuaren koordinazioa, antolamendua eta kudeaketa hobetzea.**

8.1 Haurrentzako Zerbitzuan koordinazioa hobetu

8.2 Pertsonen kudeaketarako prozesuak hobetu

8.3 Barne lidergotza indartu eta Haurrentzako Zerbitzuarekin lotura duten profesionalen gaitasuna areagotu

| 1. HELBURUA: esku hartzeko irizpide komunak berrikusi, kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatuz | |
|---|---|
| *1.1. Adingabearen interesean zentratutako esku hartze eredua sustatu, non zuzenean erabakiak hartzean parte hartzen duen eta arretaren jarraikortasuna bermatzen duen.* | |
| 1.1.1. Haurrentzako Zerbitzuan esku hartze irizpide eta prozesuak berrikusi eta homogeneizatu.<br>1.1.2. Adingabeak euren prozesuan entzunak, lagunduak direla eta parte hartzen dutela une oro bermatu. | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko gidaliburua eguneratu, atal ezberdinek parte hartzen duten lan taldeak sortuz, eta helburu hauek izango dituena:<br>a) Erabakiak hartzerakoan eta hartu beharreko neurrietan irizpide teknikoak bateratu, eta esku hartzean oinarrizko printzipioak bermatu.<br>b) Esku hartzerakoan bateratutako prozesu eta tresnak aintzat hartu.<br>c) Atalen, OGZen, zerbitzua ematen duten erakundeen eta gainontzeko sistemen arteko koordinazio handiagoa lortu.<br><br>Esku hartzeko Gidaliburuak zati administratibo bat eta zati tekniko bat izango du, eta honetan oinarrituko da:<br>- Erabakiak hartzea gidatzen duten irizpide teknikoak zehaztu eta euren esfera pertsonalean, familiar edo sozialean eragina duten erabakietan adingabeen parte hartzea bermatzeko neurriak proposatu, bere adin eta heldutasunera egokitutakoak.<br>- Esku hartzearen garapenean printzipio orokor gisa adingabearen interesa eta informatuta eta entzunda izateko eskubidea barne hartu, bermatzen duten adierazleak zehaztuz..<br>- Kasuaren tipologiaren arabera esku hartze prozesuak diseinatu, alde orokorrago batekin eta beste bat hartutako neurri motari egokitutakoa, esku hartzean, ekintzetan, bisita erregimenean (hala badagokio), arduradunetan eta epeetan bideratzeak ezartzen dituena. Era berean, konplexutasun handiko kasuetan esku hartze pautetan laguntza zehatzak izateko aukera.<br>- Tresnak berrikusi: Babeserako Banakako Plana eta Esku hartze Sozioedukatibo plana eta pauta eta bideratzeen gidaliburu bat egin, planak diseinutik bertatik eta plana gauzatzetik planak zeharkago diseinatzeko esperientzia pilotua martxan Jartzetik.<br>- Zerbitzua ematen duten erakundeen eta OGZen eta haurrentzako Zerbitzuaren atalen arteko komunikazio sistema bat izan, | 2017-2018 |

| | |
|---|---|
| • Haurrentzako Zerbitzuan egindako lanaren antolaketa berrikusi:<br>- Lanpostu bakoitzaren funtzio, lan eta ardurak berriz definitu, esleipenen mugak eta hierarkia ordena ezarriz.<br>- Publikoaren arreta denborak eta barne lana gehiago egituratu.<br>- Guardien egungo sistema berrikusi, atal ezberdinen arteko sistema berdinago bat ezarriz. | |

| **1. HELBURUA: esku hartzeko irizpide komunak berrikusi, esku hartzearen kalitatea eta etengabeko hobekuntza** | |
|---|---|
| *1.2. **Prebentzio lan ikuspegia indartu, familietan eta adingabeetan zentratutako esku hartzeak eginez, babesgabetasun egoerak arintzeko**.* | |
| 1.2.1. Familiekiko lotura sustatu esku hartze prozesu guztian zehar.<br>1.2.2. Kronizitate eta gurasoen ezgaitasun egoerei erantzuna eman. | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Hasierako faseetatik historikoki BFAn espedientea irekita duten familiak identifikatu eta OGZekin batera esperientzia pilotu bat garatu gurasoen gaitasuna indartzeko eta kronizitate egoeren prebentziorako. | 2018 |
| Babesgabetasun egoeran dauden adingabeak dituzten Haurrentzako Zerbitzuko erabiltzaile diren familiekin gurasotasun positiboko lana sustatu. | 2017-2018 |
| 0-3 urteko adingabeekin Balorazio-Esku hartze prozesua ebaluatu, euren gurasoekin esku hartze programa zehatza egiteko egokitasuna baloratzeko. | 2018 |

| **1. HELBURUA: esku hartzeko irizpide komunak berrikusi, esku hartzearen kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatuz** | |
|---|---|
| *1.3. Ebaluazioa esku hartzearen kalitatearen hobekuntza jarraitutako elementu klabe bezala barne hartu.* | |
| *1.3.1. Haurrentzako Zerbitzuko alderdi klabeak ebaluatzeko aukera ematen duten prozesuak barne hartu.*<br>*1.3.2. Haurrentzako Zerbitzuak egindako programa eta esku hartze ezberdinen jarraipen eta ebaluazio dinamikak garatu.*<br>*1.3.3. Haurrentzako Zerbitzuak bertan espedientea irekita izan duten gazteekin egindako esku hartzearen inpaktuaren jarraipen eta ebaluazio dinamikak sustatu.* | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Hobekuntza etengabeko dinamikak barne hartzen dituen ebaluazio orokorreko sistema bat zehaztu eta ezarri, hauxe definitzen duena:<br>- Haurrentzako Zerbitzuko klabe diren adierazleak identifikatu<br>- Klabe diren adierazleak monitorizatu eta erregistratzeko sistema bat diseinatu<br>- Asebetetze orokorreko inkestak eta autoebaluaketak egin<br>- Helburuak betetzeko mailaren jarraipena egiten duen ebaluazio taldea sortu<br>- Hobetzeko proposamenak dituen amaierako ebaluazio txostena egin<br>- Esku hartze prozesuei lotutako ikerketak egin<br>- Hobekuntzak sartzeko eta emaitzak hedatzeko ekintzak egin | 2019 |
| Haurrentzako Zerbitzuak berak garatutako eta erakundeekin hitzartutako programen ebaluazio diseinua zehaztu eta ezarri:<br>- Programa bakoitzarentzat adierazleen sistema definitu<br>- Adierazleak monitorizatu eta erregistratzeko sistema bat diseinatu<br>- Asebetetze orokorreko inkestak eta autoebaluaketak egin<br>- Programa bakoitzaren helburuak betetzen diren mailaren jarraipena egiten duen ebaluazio taldea sortu<br>- Programa bakoitzaren ebaluazio txostena egin, hobekuntza proposamenekin<br>- Esku hartze prozesuei lotutako ikerketak egin<br>- Programa bakoitzarentzat identifikatutako hobekuntzak sartu eta emaitzak hedatzeko ekintzak egin | 2017-2019 |
| Ebaluazio plana garatu bitartean ikerketa espezifikoa egin, Haurrentzako Zerbitzuak egindako esku hartze prozesuen inpaktuarenak. | 2017-2019 |

| 2. HELBURUA: Programa eta baliabideen espezializazioan aurrera egin, behar berriei erantzunez | |
|---|---|
| ***2.1. Programa eta baliabideen espezializazioan aurrera egiten jarraitu, hautemandako behar berrietan eragin berezia duten haurrei zuzendutako baliabideak handituz.*** | |
| *2.1.1. Haurrentzako Zerbitzuaren babespean egon diren 18 urtetik gorakoekin BFAren beste zerbitzuetara bideratzeko prozesuak hobetu.*<br>*2.1.2. Banaketa edota dibortzio kasuetan adingabeen instrumentalizazio kasuetan esku hartze zehatzak egiteko beharra eta egokitasuna ebaluatu.*<br>*2.1.3. Errealitate eta behar berriei arin erantzuteko aukera ematen duten programak baloratu eta sustatu, hala badagokio, buru osasun arazoak dituzten adingabeetan.*<br>*2.1.4. Adingabe eta Ijitoen kolektiboarekin esku hartze programak kolektiboaren beharretara egokitu.* | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Estali gabeko beharrei erantzuna emateko programa berrien beharra baloratu | 2018 |
| Aldundiaren babesean egon diren adingabeak Gizarteratze edota Emakume eta Familia Esku hartze baliabideetara bideratzeko protokoloa eguneratu, programa ezberdinetan emandako zerbitzuak lortzeko irizpideak berrikustea bereziki azpimarratuz. | 2016 |
| Banaketa edota dibortzio egoeretan adingabeak instrumentalizatzeko kasuetan aurrera eramandako esku hartzeen bolumen eta mota baloratu, programa zehatz bat garatzeko beharra edo ez zehazteko. | 2018 |
| Konpentsazio Hezkuntza Kontsortzioan balorazio txosten bat egin eta aurkeztu, OSATUZ programaren estaldura handitzeko egokitasunaren gainekoa, buru osasun arazoei lotutako jarrera larriak dituzten ikasleentzat. | 2016 |
| Arreta psikiatriko eta psikologikoko Adin Txikikoak programa ebaluatu, arrisku larriko edo babesgabetasun egoeran dauden adingabeen diagnostiko eta tratamendurako, bere jarraikortasuna baloratzeko, hobekuntzak identifikatzeko eta programa indartzeko (hala | 2017 |
| Osakidetzarekin batera buru osasun arazoak dituzten adingabeentzat egoitza izaeraren hurbiltasun baliabideen existentzia sustatu. | 2017 |
| Adingabe eta Ijitoekin Esku hartze Programa ebaluatu kolektiboaren errealitateari egokitzeko esku hartzeko metodologiak sartuz. | Programa esleitu aurretik |

**3. HELBURUA: Familia harrera lehentasunezko babes neurri bezala izatearen aldeko apustua egiten jarraitu, hedapen ekintzak, existitzen diren laguntza baliabideak eta harrera prozesuak hobetuz**

***3.1. Eragin sozial handia lortu urtean zehar jarraikortasuna duten informazio eta sentsibilizazio ekintzak eginez, familia hartzaileek egiten duten gizarte papera balorean jartzen dutenak eta beste familia batean familia hartzaile kopuru nahikoa dagoela bermatzen dutenak.***

3.1.1. Familia hartzaileak lortzeko prozesuetan sakondu, hobekuntzak sartuz eta gizarte sentsibilizazio ekintza berriak eginez.
3.1.2. Familia hartzaileak lortzeko kanal berriak eta hedapen estrategiak garatu.

| EKINTZAK | EPEAK |
|---|---|
| Barne talde bat osatu honetan sakontzeko:<br>- Familia harreran parte hartzea baldintzatzen duten faktoreak.<br>- Familiek harrera mota bat aukeratzeko arrazoiak.<br>- Haurrentzako Zerbitzutik aurrera eramaten diren hartze ekintzetan hobetu beharreko alderdiak.<br>Egindako lortze ekintzak baloratzeko txosten bat egiteko asmoz, hobekuntzak sartzeko eta beste familia batean harrera egiteko eskaintza egiten duten familia kopurua zabaltzeko. | 2017 |
| Komunikazio Plan bat egin familia hartzaile kopuru handiagora heltzeko, hauxe barne hartzen duena:<br>- Gizarte inpaktu zabala duten ekintza asko.<br>- Sare sozialak bezalako hedapen kanal berriak.<br>- Testuinguru zehatzetara hurbiltzeko estrategiak.<br>- Sektore arteko taldean identifikatutako hobekuntza ekintzak. | 2017-2018 |
| Bi urtean behin behitzat lortze kanpainak egin. | 2017-2019 |
| Urtero hedapen ekintza zehatzak gauzatzen direla bermatu. | 2016-2019<br>Urtek |

| **3. HELBURUA: Familia harrera lehentasunezko babes neurri bezala izatearen aldeko apustua egiten jarraitu, existitzen diren laguntza baliabideak indartuz eta harrera prozesuak hobetuz** | |
|---|---|
| ***3.2. Harrera prozesuak hobetu eta familia hartzaileenganako laguntzak handitu eta zatitu.*** | |
| 3.2.1. Familia hartzaileen onarpen irizpide eta prozesuak berrikusi, familia gehiago barne hartzeko.<br>3.2.2. Familia hartzaileak laguntzeko baliabideak indartu.<br>3.2.3. Larrialdiko harrerak hobetu. | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Familien hezkuntza irizpideak berrikusi, ahal izatekotan malgutzen eta adingabeari egokitzen saiatuz, balorazioa egiteko 3 hilabeteko gehieneko epea ezarriz. | 2017 |
| Familia harrera egitea posible egiten duten prozedura eta tresnak izan. | 2017 |
| Harreren baldintza ekonomikoak hobetu. | 2017 |
| Beste familia hartzaile batzuk egindako atseden hartzeko zerbitzuak martxan jarri. | 2017 |
| Larrialdiko harrera prozesua berrikusi eta identifikatzen diren hobekuntzak ezarri. | 2017 |
| Larrialdiko programa zabaldu jarduera irizpide homogeneoak diseinatuz, atal guztietatik erabilera zabalduz eta alternatiba guztiak indartuz larrialdiko balorazioa amaitu ondoren. | 2017 |

| 3. HELBURUA: Familia harrera lehentasunezko babes neurri bezala izatearen aldeko apustua egiten jarraitu, existitzen diren laguntza baliabideak indartuz eta harrera prozesuak hobetuz | |
|---|---|
| ***3.3. Espezializatutako harrera sustatu.*** | |
| 3.3.1. Espezializatutako harrerak garatzeko irizpide eta prozedurak definitu.<br>3.3.2. Bere existentzia bermatzeko ekintzak garatu. | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Espezializatutako harrera modalitateari hoberen egokitzen zaizkion hautagaitzak baloratzeko irizpideak definitu. | 2017 |
| Espezializatutako harrera garatzeko prozedurak ezarri. | 2017 |
| Profesionalizatutako harrera programa pilotua haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legera egokitu. | 2017 |
| Espezializatutako Harrerari buruzko formazio ekintza zehatzak egin eta programa pilotuak garatu. | 2017 |
| Espezializatutako Harrera Programa bat martxan jarri. | 2017 |

| 3. HELBURUA: Familia harrera lehentasunezko babes neurri bezala izatearen aldeko apustua egiten jarraitu, existitzen diren laguntza baliabideak indartuz eta harrera prozesuak hobetuz | |
|---|---|
| ***3.4. Familia handiko harrera modalitatea lagundu.*** | |
| 3.4.1. Familia handian laguntza eredua ebaluatu.<br>3.4.2. Familia handian harrera familien laguntzak hobetu. | |
| **EKINTZAK** | **EPEAK** |
| Harrera mota hauen emaitza eta efektuak baloratzeko aukera ematen duen familia handiko harrerari buruzko ikerketa sakona egin, eta harrera familien laguntzarako praktika onak identifikatzen dituena eta egungo laguntza eredua hobetzen duena. | 2019 |
| Familia handian familia hartzaileetan ematen diren laguntza beharrak eta eskaera baloratu. | 2018 |
| Existitzen diren familia harrera programak hautemandako beharretara egokitu. | 2016-2019 |

| **4. HELBURUA: Adopzio prozesuetan arrisku egoerak murriztu, prebentzioan lan eginez eta prozesuaren jarraipen, laguntza eta ebaluazioa gauzatuz.** | |
|---|---|
| 4.1. Arrisku egoerak aurreikusi, familia hartzaileen eta adopzioan emandako adingabeen arreta prozesuak hobetuz. | |
| 4.1.1. Adingabe eta familiei arreta hobetu adopzio aurreko prozesuetan<br>4.1.2 Haurrak eta nerabeak babes sistemaren aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeari egokitzeko adopzio prozesuetan beharrezko diren egokitzapenak barneratu | |
| EKINTZAK | EPEAK |
| Adopzio aurreko prozedurak berrikusi eta hobetu, bai familiei arreta eta esku-hartzean zein adingabeak adopziorako prestakuntzan. | 2017 |
| Nazional zein nazioarteko adopzioa itxoiten ari diren gurasoen babes taldeak sortuz talde formazioa burutu. | 2017 |
| Adopzio familien egokitasun irizpideak berrikusi. | 2017 |
| Adopzio prozeduretan 26/2015 Legean aurreikusitako aldaketak barneratu. | 2017 |
| Jatorri bilaketaren eremuan antzemandako behar berrietan oinarrituta prozedurak baloratu eta egokitu. | 2017 |

| 4. HELBURUA: Adopzio prozesuetan arrisku egoerak murriztu, prebentzioan lan eginez eta prozesuaren jarraipen, laguntza eta ebaluazio jarraitua. | |
|---|---|
| 4.2. Adopzio prozesuetan orientazio , aholkularitza eta laguntza egokia bermatzen duten baliabideak izan, prebentzioaren ikuspegitik. | |
| 4.2.1 Adingabeak bere testuinguru berrira egokitzeko prozesuak errazteko adoptatutako adingabeak eta familia adopzio hartzaileek behar duten babesa bermatu<br>4.2.2 Esku-hartze goiztiarra egiteko zailtasunen identifikazio eta ekiteak lagundu | |
| EKINTZAK | EPEAK |
| Adopzio babeserako baliabideak areagotu egungo kasuen kopuru eta errealitateari egokituz. | 2016 |
| Prestakuntza eta integrazio prozesuak modu egokian betetzen direla bermatzeko familiei babes indibidualizaturako egungo programa zehatza berrikusi eta | 2016 |
| Dauden zailtasunak identifikatu eta hobekuntzak txertatzeko adopziorako babes programa ebaluatu. | PAAb esleitu |
| Adingabeen psikopatologien arreta goiztiarreko hautematea bermatzeko guraso adopzio-hartzaileekin aldizkako formazioa saioak burutu. | 2016 |

| | |
|---|---|
| 4. HELBURUA: Adopzio prozesuetan arrisku egoerak murriztu, prebentzioan lan eginez eta prozesuaren jarraipen, laguntza eta ebaluazio jarraitua. | |
| **4.3. Adopzio irekia garatu.** | |
| 4.3.1 Adopzio irekia garatzeko esku-hartze irizpide eta prozesuen inguruan hausnartu<br>4.3.2 Adopzio irekiaren inplikazioen inguruan sentsibilizatu eta hedapena egin<br>4.3.3 Adopzio irekiak inplikatutako alde guztiengan duen eragina baloratu. | |
| EKINTZAK | EPEAK |
| Adopzio irekiaren inguruko lan talde bat sortu, honako helburuak lortzeko:<br>- Aurrera eramateko baldintza eta irizpideak zehaztu.<br>- Adopzio irekia aukera egokiena duten adingabeak identifikatu.<br>- Familia biologikoen jokatzen duten paperaren inguruan hausnartu eta behar duten babesa eskaini.<br>- Adopzio irekiaren modalitatea garatzeko prozedura zehatza sortu, adopzio irekirako egokienak diren adingabeen ezaugarrien balorazioa eta formazio ekintzak bilduz. | 2017 |
